

PSIKOLOGIA

Iñaki ZUBILLAGA GURUPEGUI

ADIMEN URRITASUN ARINAREN CEI
BATEN APLIKAZIOAN ERABILTZEKO
TEKNIKA PSIKOLOGIKOAK

TFG/GBL 2014

Lehen Hezkuntzako Irakasleen Gradua
Grado en Maestro en Educación Primaria

Gradu Bukaerako Lana
Trabajo Fin de Grado

ADIMEN URRITASUN ARINAREN CEI BATEN
APLIKAZIOAN ERABILTZEKO TEKNIKA
PSIKOLOGIKOAK

Iñaki ZUBILLAGA GURUPEGUI

GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIEN FAKULTATEA
FACULTAD DE CIENCIAS HUMANAS Y SOCIALES

NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA
UNIVERSIDAD PÚBLICA DE NAVARRA

Ikaslea / Estudiante

Iñaki ZUBILLAGA GURUPEGUI

Izenburua / Título

Adimen urritasun arinaren curriculum egokitzapen indibidual (CEI) baten aplikazioan erabiltzeko teknika psikologikoak

Gradu / Grado

Lehen Hezkuntzako Irakasleen Gradua / Grado en Maestro en Educación Primaria

Ikastegia / Centro

Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea / Facultad de Ciencias Humanas y Sociales
Nafarroako Unibertsitate Publikoa / Universidad Pública de Navarra

Zuzendaria / Director

Fernando TRÉBOL UNZUÉ

Saila / Departamento

Psikologia eta pedagogia

Ikasturte akademikoa / Curso académico

2013/2014

Seihilekoa / Semestre

Udaberria / Primavera

Hitzaurrea

2007ko urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretua, 2010eko 861/2010 Errege Dekretuak aldatuak, Gradu ikasketa ofizialei buruzko bere III. kapituluan hau ezartzen du: “ikasketa horien bukaeran, ikasleek Gradu Amaierako Lan bat egin eta defendatu behar dute [...] Gradu Amaierako Lanak 6 eta 30 kreditu artean edukiko ditu, ikasketa planaren amaieran egin behar da, eta tituluarekin lotutako gaitasunak eskuratu eta ebaluatu behar ditu”.

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Haur Hezkuntzako Irakaslearen Graduak, ANECAk egiaztatutako tituluaren txostenaren arabera, 12 ECTSko edukia dauka. Abenduaren 27ko ECI/3857/2007 Aginduak, Haur Hezkuntzako irakasle lanetan aritzeko gaitzen duten unibertsitateko titulu ofizialak egiaztatzeko baldintzak ezartzen dituenak arautzen du titulu hau; era subsidiarioan, Unibertsitatearen Gobernu Kontseiluak, 2013ko martxoaren 12ko bileran onetsitako Gradu Amaierako Lanen arautegia aplikatzen da.

ECI/3857/2007 Aginduaren arabera, Haur Hezkuntzako Irakaslearen ikasketa-plan guztiak hiru modulutan egituratzen dira: lehena, oinarrizko prestakuntzaz arduratzen da, eduki sozio-psiko-pedagogikoak garatzeko; bigarrena, didaktikoa eta diziplinakoa da, eta diziplinen didaktika biltzen du; azkenik, Practicum daukagu, zeinean graduko ikasleek eskola praktiketan lortu behar dituzten gaitasunak deskribatzen baitira. Azken modulu honetan dago Gradu Amaierako Lana, irakaskuntza guztien bidez lortutako gaitasun guztiak islatu behar dituenak. Azkenik, ECI/3857/2007 Aginduak ez duenez zehazten gradua lortzeko beharrezkoak diren 240 ECTSak nola banatu behar diren, unibertsitateek ahalmena daukate kreditu kopuru bat zehazteko, aukerako irakasgaiak ezarriz, gehienetan.

Beraz, ECI/3857/2007 Agindua betez, beharrezkoa da ikasleak, Gradu Amaierako Lanean, erakus dezan gaitasunak dituela hiru moduluetan, hots, oinarrizko prestakuntzan, didaktikan eta diziplinan, eta Practicumean, horiek eskatzen baitira Haur Hezkuntzako Irakasle aritzeko gaitzen duten unibertsitateko titulu ofizial guztietan.

Lan honetan, oinarrizko prestakuntzako modulua/ak eta honetan landutako ikasgaiak, bereziki psikologia eta hezkuntza bereziaren eremukoak, gai honen inguruko hausnarketa eta ikerketa egiteko bidea argitu digute. Psikologia ebolutiboaren eta eskolako prozesuen oinarri psikologikoen inguruan jasotako formazioa oso lagungarria izan da gai hau garatzeko eta ikasleen jokatzeko modua ulertzeko. Curriculum egokitzapen indibiduala prestatzerakoan oso garrantzitsua izan da Hezkuntza Bereziaren oinarri psikologikoak ezagutzea.

Didaktika eta diziplinako modulua/ak zehazten ditu eskolako arlo eta jarduera didaktikoen antolaketa. Gela barruan egiten diren aktibitate guztiak antolatzeko oso garrantzitsua izan da. Kasu honetan, hezkuntza behar bereziak dituen ikasle baten curriculum egokitzapena prestatzeko ezinbestekoa da didaktikaren inguruko hainbat ezagutza praktikan jartzea. Arloak eta gelako eguneroko jarduera modu egoki batez antolatzeko argibideak eman dizkigu.

Halaber, Practicum modulua/ak eskola baten funtzionamendua eta barrutik ezagutzeko aukera eman digu. Eskolako partaide guztiekin izandako harremana oso erabilgarria izan da unibertsitatean landutako gaiak hobeto ulertzeko. Bestalde, bost urtez lanean egotea oso lagungarria izan da lan hau egiterakoan. Bereziki, hezkuntza laguntza unitatean egon nintzen urtean ikasitakoa, curriculum egokitzapen indibidualaren gaia lantzeko oso lagungarria izan da.

Azkenik, "Adaptación al Grado" ikastaroaren bidez, hezkuntza arloan erabiltzen ari diren metodologia eta teknika berrien inguruan informazio baliogarria eskuratu dut. Proiektuen bidez lan egitearen metodologia oso lagungarria izan da curriculum egokitzapen indibiduala duen ikasle batentzako bidea eta ikaskuntza prozesua antolatzeko.

Beste alde batetik, ECI/3857/2007 Aginduak ezartzen du, Gradua amaitzerako, ikasleek gaztelaniazko C1 maila eskuratuta behar dutela. Horregatik, hizkuntza gaitasun hau erakusteko, hizkuntza honetan idatziko dira "Ley: atención a la diversidad", "Adaptación curricular: concepto y tipos" "Dificultades del aprendizaje" eta "Evaluación" atalak, baita hurrengo atalean aipatzen den laburpen derrigorrezkoa ere.

Laburpena

Proiektu honen helburu nagusia, hezkuntzaren alderdi garrantzitsu baten inguruan hausnarketa eta ikerketa bat egitea da. Aipatutako alderdia curriculum egokitzapen indibiduala da. Hezkuntza Bereziaren prozesu historikoa eta gaur egungo antolaketa aztertzen dut. Curriculum egokitzapenaren atal ezberdinen analisia egiten dut: kontzeptua, motak eta ezaugarriak. Honekin, eta teoria psikologiko garrantzitsu batzuk kontutan hartuta, lan egiten dudan eskolan erabiltzen den curriculum egokitzapena hobetzeko proposamen bat prestatzen dut. Zehazki, adimen urritasun arina duten ikasleekin erabiltzen diren prozedurak eta curriculum egokitzapen indibiduala hobetzeko proposamena da. Horretarako bi aspektu kontutan hartzen ditut: alde batetik ikaslearen inguruko informazioa eta datuak jasotzeko modua, eta bestetik, ikasleak bere ikaskuntza prozesuan egingo duen autoebaluaketa.

Hitz gakoak: curriculum egokitzapena; teoria psikologikoak; adimen urritasuna; hobetzeko proposamena; autoebaluaketa

Resumen

En este proyecto mi objetivo principal es hacer una reflexión y una investigación sobre un apartado de la educación que considero muy importante como es, la adaptación curricular individual. Hago un seguimiento del recorrido histórico de la Educación Especial en nuestro sistema educativo y de su organización actual. Después de analizar diferentes aspectos de la adaptación curricular como son: concepto, tipos y características, y teniendo en cuenta las diferentes teorías psicológicas existentes, me decido a hacer una aportación personal para la mejora de la que se utiliza en el centro escolar en el que actualmente trabajo. En concreto, intento mejorar los procedimientos que se utilizan en las adaptaciones curriculares para alumnos/as con retraso mental leve. Mi propuesta de mejora se basa en la recogida de datos y en la autoevaluación del alumno/a.

Palabras clave: adaptación curricular; teorías psicológicas; retraso mental; propuesta de mejora; autoevaluación

Abstract

To begin with, the main aim of this Project is the reflection and investigation of an important educational aspect: this aspect is the individual adaptation of the curriculum. Referring to this, I have analyzed the historical process of the Special Education of our educational system, and its current organization. Once analysed the several aspects of the curriculum adaptation, such as: the concept, types and features, and taking into account the different psychological theories that exist nowadays, I've elaborated a proposal with the objective of the improvement of the curriculum adaptation of the school I 'm actually working in.

I specially pretend the improvement of the procedures used in low retardation learners' curriculum adaptation.

As I mentioned before, my proposal of the curriculum adaptation improvement is based on the learners' data collection and their self-evaluation.

Keywords: curriculum adaptation; psychological theories; low retardation; proposal; self-evaluation

Aurkibidea

| | |
|--|-----------|
| Justifikazioa, helburuak eta galderak | 1 |
| 1. Marko teorikoa | 4 |
| 1.1. Hezkuntza bereziaren prozesu historikoa | 4 |
| 1.1.1. Hasieratik, hezkuntzaren Lege Orokorra arte | 4 |
| 1.1.2. Lege Orokorra (1970) tik LOGSE (1990) arte | 7 |
| 1.2. Ley : atención a la diversidad | 9 |
| 1.3. Oinarrizko gaitasunak | 11 |
| 1.4. Curriculum egokitzapena | 13 |
| 1.4.1. Testuinguraketa : Fluxu diagrama | 13 |
| 1.4.2. Adaptación curricular : concepto y tipos | 15 |
| 1.4.3. Curriculum egokitzapenaren irizpide psikologikoak | 20 |
| 1.5. Teoria psikologikoak | 21 |
| 1.6. Dificultades del aprendizaje | 26 |
| 1.7. Eskola garaian ematen diren nahaste psikoebolutiboak eta psikopatologiak: | 30 |
| 1.8. Adimen urritasun arina | 31 |
| 1.9. Ebaluaketa | 34 |
| 1.10. Autoebaluaketa | 37 |
| 2. Garapena : atal praktikoa | 39 |
| 2.1. Curriculum egokitzapenaren azterketa | 39 |
| 2.2. Testuinguraketa | 41 |
| 2.2.1. Eskolaren ezaugarriak | 41 |
| 2.2.2. Lehen Hezkuntzako haurren ezaugarriak | 43 |
| 2.2.3. Lehen Hezkuntzako helburuak | 44 |
| 2.3. Curriculum egokitzapenaren inguruko hausnarketa | 45 |
| 2.4. Aktibitate motak keta ezaugarriak | 46 |
| 2.5. Ikasleen autoebaluaketa | 50 |
| 3. Eskolan duen eragin psikologiko, pedagogiko eta soziala | 51 |
| Ondorioak | 53 |
| Erreferentziak | 55 |
| Gehigarriak | 57 |
| 1. gehigarria: Oinarrizko gaitasunen laburpen-taula | 57 |
| 2. gehigarria: CREENA-NHBBZ | 59 |
| 3. gehigarria: fluxu-diagrama | 61 |
| 4. gehigarria: Sarriguren CEI | 62 |
| 5. gehigarria: Informazioa lortzeko galdetegia | 73 |
| 6. gehigarria: Sentimenduak/edukiak taula | 76 |
| 7. gehigarria: Ikaslearen egunerokoa | 77 |

JUSTIFIKAZIOA, GALDERAK ETA HELBURUAK

Proiektu honetan jorratzen den gaia honako hau da: Adimen urritasun arinaren curriculum egokitzapen indibidual baten aplikazioan erabiltzeko teknika psikologikoak.

Gaiaren izenak azaltzen duenez, nire lana curriculum egokitzapen indibidualaren inguruko informazioa jasotzea eta aztertzea izan da. Gaia gehiago zehaztu dut eta adimen urritasun arina duten ikasleekin jarraitzen den prozeduraren inguruan ikertu dut.

Horrelako ikerketa bat egiterakoan uste dut garrantzitsua dela legeak zer dioen aztertzea. Kontutan hartu ditudan legeak bi izan dira: alde batetik LOE eta bestetik Dekretu Forala. Lege hauetan hainbat aipamen interesgarri egiten dira eta nire lanaren abiapuntua eta motibazioa izan dira.

Lege Organikoak esaten duenez, aniztasunaren trataera hezkuntza sistema oinarritzen duen printzipioa da eta ondorioz, haur guztiek bere ezaugarri eta beharren arabera hezkuntza jaso behar dute.

Dekretu Foralak esaten du aniztasuna hezkuntza zentroetan aurkitzen dugun errealitatea dela eta irakasleok horrela ulertu behar dugula. Normalizazioa, atentzio pertsonalizatua eta inklusioa kontutan hartu beharreko printzipioak direlarik. Hezkuntza sistemak malgutasuna izan behar du ikasle bakoitzaren interes, behar, gaitasun eta heltze erritmo ezberdinak errespetatuak izan daitezzen.

Laburtuz, haur guztiek kalitatezko hezkuntza bat jasotzeko eskubidea dute eta irakasleon erantzunkizuna da.

Lehen Hezkuntzan 6-12 urte bitarteko hurrekin lan egiten dugu. Adin hauetan, ezberdintasun handiak eman daitezke haurretan. Hau da, interes, motibazio, heltze maila, gaitasun eta ikaskuntza erritmo ezberdinekin topo egiten dugu. Nahaste psikoebolutibo ezberdinak (dislexia, hiperaktibitatea, mutismo selektiboa...) dituzten haurrak ditugu gela arruntetan. Beraz, haur guztiek ezin dute modu eta erritmo berean lan egin. Ikasle askok antzeko erritmoa jarraitu dezakete eta hobe moldatzen dira gelako eguneroko jarduerekin eta metodologiarekin baina, zer gertatzen da erritmo

eta metodologia horretara moldatzen ez diren ikasleekin? Galdera honi erantzutea izan da nire helburu nagusia.

Tutorea izanda, adimen urritasun arina duen ikasle bat gelan izan nuen iaz. Ikasle honek curriculum egokitzapen indibiduala jarraitzen zuen eta berarekin bizitako esperientzia izan da gai hau jorratzeko motibatu nauena. Zailtasun edo behar bereziak dituzten ikasleekin lan egitea oso motibagarria dela uste dut. Ikasle hauen ikaskuntza prozesuan laguntza ematea eta garapena hobetzea oso interesgarria da.

Beste urte batean ikasle etorkinekin lan egin nuen eta Hezkuntza Laguntza Unitatean sartuta egon nintzen. Curriculum egokitzapen indibidual bat jarraitzea tokatu zitzaidan.

Laburtuz, bi esperientzia hauetan curriculum egokitzapen indibidualekin lan egitea tokatu zait. Nahiz eta oso ondo definituak egon, hainbat hutsune antzeman ditut eta hezkuntza, eta zehazki egokitzapenak hobetzeko helburuarekin, ikerketa hau eta hobekuntzarako proposamen bat planteatzen dut. Hezkuntzaren alderdi hau hobetu daitekeela uste dut.

Lan honen abiapuntua eta gaiaren garapena egin baino lehen honako galdera hauek planteatu ditut:

- Zer da curriculum egokitzapen indibiduala? Zeintzuk dira ezaugarriak?
- Zertarako eta zergatik egiten da?
- Non kokatzen da?
- Nork prestatzen du? Nortzuk parte hartzen dute? Nolakoa da ikaslearen parte hartzea?
- Noiz egiten da? Nola?
- Nola ebaluatzen da? Nork ebaluatzen du?
- Aspektu psikologikoak kontutan hartzen dira? Zeintzuk?

Honako hauek dira ikerketa honetan planteatu ditudan helburuak:

1. Hezkuntza Bereziaren prozesu historikoa eta gaur egungo legedia ezagutu eta aztertu, curriculum egokitzapen indibidualaren testuinguraketa egiteko eta bere ezaugarriak ulertzeko.
2. Eskola garaian ematen diren nahaste psikoebolutiboak eta bereziki adimen urritasunaren inguruko informazioa aztertu, autore ezberdinen teoria eta irizpide psikologikoak kontutan hartuz, curriculum egokitzapen indibidual batean hobekuntza proposamen bat planteatzeko.

1. MARKO TEORIKOA

1.1. Hezkuntza Bereziaren prozesu historikoa

Jarraian, diplomaturako hirugarren mailan landutako “Hezkuntza Berezia” ikasgaiaren ikasitakoan oinarrituz, hezkuntzaren eremu honen inguruko prozesu historikoa azaltzen dut.

1.1.1. Hasieratik, hezkuntzaren Lege Orokorra arte

Hezkuntza Bereziak bide luzea jarraitu duela esan dezakegu. Hasieratik, hezkuntzaren Lege Orokorra argitaratu arte lau epealdietan banatu dezakegu. Honako hauek izan dira lau epealdi nagusiak: aurrekariak, Hezkuntza Bereziaren erakundetzearen hasiera, sendoketa saiakuntzak eta garapena.

Aurrekariak:

Espanian, XIX. mendearen hasieran has gaitzek hitz egiten hezkuntza bereziaren sistematizazioaz. 1802. urtean egindako errege aginduak Madrilgo gormutuen errege eskolaren sorrera eta mantentzea ahalbidetzen du. Hala ere XVI. mendetik aurrera haur gaingabeziaren aldeko pausoak eman zirela esan beharra dago. Baina garai hartako egoera soziopolitikoa dela eta, ez zen hezkuntza bereziaren kontzeptua garatu eta ondorioz ez ziren aurrera pausorik eman urritasunak zituzten ikasleen hezkuntza-murgiltzean (gela arruntetan). XVI. mendean lehenengo tratatuak agertu ziren, gormutuen eta itsuen inguruan hain zuzen ere.

Hezkuntza Bereziaren erakundetzearen hasiera:

XVIII. mendearen amaieran lehen urratsak ematen hasi ziren. Lehenengo urrats hauek gormutu eta itsuen eremuan eman ziren eta beste motatako urritasun eremuak alde batera geratu ziren.

Irakasleen jarrerak ere eragina izan zuen garai honetan zegoen egoerarekin. Irakasleek ez zuten pentsatzen ikasle hauen hezkuntzan eta eskolatzean, ez zegoen onarpen kontzientziarik eta ondorioz irakasleen prestakuntza ere ez zen egokia. Estatuaren politika, eskola berezien sorrera eta indartzera bideratua zegoen. Itsuak eta gormutuak

kenduta, gainontzeko ezinduak gaixo bezala erakundetzen zituzten. Ez ziren adinaren araberako taldekatzeak egiten eta adin ezberdinetako ezinduak nahasten zituzten.

Hezkuntzaren legeen garapenari dagokionez esan dezakegu 1807 eta 1856. urteen artean hezkuntzarekin erlazionatutako lege, plan eta arautegi ezberdinak argitaratu zirela. Hauetan, urritu fisiko eta psikikoen hezkuntzaren inguruan ez zen batere aipatzen eta argitzen. 1857. urtean Heziketa Publikoaren Legea argitaratzen da baina ez da aurrera pausorik ikusten. Berrero ere gormutu eta itsuei buruz hitz egiten da (bakarrik 108. artikuluan). Moyano Legea eta Hezkuntzaren Lege Orokorraren (1970) artean pasa ziren ehun urteetan eskola sistemaren garapena behar sozialetara bideratu zen.

Ikasleen eskolatzeari dagokionez, eskola berezietan eman zela esan dezakegu.

Gormutuen inguruan XVIII. menderen bukaeratik aurrera lanak argitaratzen jarraitu zuten eta haietzako hainbat eskola funtzionatzen hasi ziren. 1802. urtean gormutuen errege eskola sortu zen, Madrilen. Aipatzekoa da nesken onarpena ez zela eman 1836. urterarte. 1851. urtean eskola, estatuaren ardurapean geratu zen eta hurrengo urtean itsuen eskolarekin elkartu zen, gormutu eta itsuen errege eskola sortu zelarik. Geroago Espainiako zonalde ezberdinetan hamabost eskolek Madrilgo antolakuntza eredua jarraitu zuten: irakaskuntza zikloen iraupena zehaztu zuen eta Braille sistema ezarri zuen.

1819. urtean itsuen bi eskola ireki ziren, Bartzelonan. Geroago, 1839. urtean hain zuten ere, bi eskolek bat egin zuten eta eskola berri bat osatu zuten, itsuen udal eskola deiturikoa. 1856. urtean beste aldaketa eman zen Bartzelonan, itsuen eskola gormutuen eskolarekin elkartu zen eta ondorioz, izena aldatu zuen; gormutuen eta itsuen udal eskola. Aurrerago, 1911. urtean berrero izen berria eman zitzaion, kasu honetan; gormutuen, itsuen eta anormalen udal eskola.

Adimen urriko ikasleen eta hauen hezkuntzaren inguruko datuak ez dira oso argiak eta nahiko urriak dira.

Mende bukaeran erreforma eskolak deiturikoak funtzionatzen hasi ziren zortzi eta hemezortzi adingabetuentzako haurrei zuzendurikoa.

Moyano Legeak gormutuen eta itsuen hezkuntza, eskola berezietan nahiz arruntetan eman zitekeela aurreikusten zuen. Hala ere, gutxi izan ziren eskola arruntetan onartutako ikasleak eta normaltzat hartutako haurrak. Bereizketak jarraitu zuten eta estatuak, eskola berezien sorrera bultzatzen zuen.

Irakasleek jasotzen zuten hezkuntza ere gormutuen eta itsuen hezkuntzan zentratzen zen. Irakasleen interesa horretan espezializatzea zen. Hezkuntza bereziaren gainontzeko irakasleentzat hurrengo menderarte itxoin beharko da beren hezkuntza sistematizatzeke. Esan beharra dago irakasle batzuk beste gaietan interesa izan zutela eta batzuk bere burua prestatu zutela, batez ere atzerrian.

Sendoketa saiakuntzak:

XX. mendearen lehenengo herenean zehar, faktore ezberdinei esker (adibidez, haurtzaroaren babesaren legea 1904an) Hezkuntza Bereziaren onurak beste kolektiboetara zabaldu zen. Hala ere, Madril eta Bartzelonara mugatu ziren praktika hauek. Adimen urriko hezkuntzarako jarraitu beharreko bidea zein zen planteatu zen.

Garapena:

Gerra zibila traba garrantzitsua izan zen aurrerakuntzetan, baino amaitzean hezkuntza bereziaren oinarriak ezartzen dira, faktore hauen ondorioz:

1938an, ONCE ren sorrera

1945. urtean lehen mailako irakaskuntzaren legearen aldarrikapena. Lege hau Espainiako hezkuntza bereziaren hasiera ofiziala izan zen.

Haurtzaro anormalaren hezkuntzaren patronatu nazionalaren sorrera. Patronatu honen helburua haur anormalak hezteko sortzen da eta 1955. urtean izena aldatu zuen. Izen berria honako hau izan zen: hezkuntza bereziaren patronatu nazionala.

Baenak (2008) dioenez, 60. hamarkadan Hezkuntza Bereziko zentroen sorrera benetan handitzen da Espainian. Adimen urriko haurren hezkuntzaren beharra defendatzen hasten da, nahiz eta modu arruntean ez izan.

1965. urtean, atzeratuen laguntza eta hezkuntza diziplina arteko batzordea sortu zen.

Zenbait eskola arruntetan pedagogia terapeutikoa berezitasuna ezarri zen.

Adimen urritasun arinaren CEI baten aplikazioan erabiltzeko teknika psikologikoak

Atzeratasunari buruzko ikerketa tekniken jardunaldien ospakizuna.

Hezkuntza nazionalaren Ministerioaren ekintzen arautzea hezkuntza bereziari dagokionez (hezkuntza bereziaren bulego tekniko bat sortu zen).

1.1.2. Lege Orokorra (1970) tik LOGSE (1990) arte

Hezkuntzaren Lege Orokorra indarrean mantendu zen LOGSE ezarri zen arte. Lege honek berritasun bat ekarri zuen, lehen aldiz hezkuntza sistemaren modalitate eta mota guztiak modu bateratuan azaldu ziren. Honen helburuak argiak ziren, alde batetik hezkuntza sistemari koherentzia ematea eta bestetik Hezkuntza Ministeritzaren berrantolaketa.

Medina Balmaseda (2006) ren ustez, eskolatzearen derrigortasunarekin eta handitzearekin zailtasunak zituzten ikasle asko detektatu ziren eta ondorioz, atzeratuen etiketa zuten ikasle asko agertu ziren eta baita ere gela berezi gehiago.

Lege hau desberdintzearen joera zeukan, ikastetxe eta ikasgela berezien sorrera bultzatzen baitzuen. Ikastetxe bereziak urritasun sakonak zituzten ikasle horientzat eta ikasgela bereziak urritasun arinak zituztenentzat. Hau da, lege hau ez doa integrazioaren ildotik. Bereiztearen perspektiba ikusten da.

Lege berean hezkuntza sistema orokorra eta hezkuntza sistema berezia azaltzen dira. Hala ere, nahiz eta lege berean agertu, ez da integrazioa bilatzen.

1978tik 1985ra, aurreko epealdian baino aurrera pauso gehiago eman ziren. Integrazio kontzeptuan hobekuntzak eman ziren. Alde batetik administrazioak esku hartzen duelako eta bestetik, prozesuak gizartean eragina duelakoz.

1978. urteko konstituzioak pertsonen arteko ezberdintasunak onartu eta aitortzen ditu. Artikulu batzuetan hezkuntza eskubideari eta minusbaliatuei buruz hitz egiten du. 49. artikulua konstituzioak aldarrikatzen dituen eskubideak lortzeko zailtasunak dituzten zenbait talde daudela dio, eta hauen artean minusbaliatuak. Artikulu honen garapenaren ondorioz, 1982. urtean Minusbaliatuak Gizartean Integratzeko Legea (LISMI) agertzen da. Normalizazioaren pentsaeran argitaratzen den lehenengo legea da eta aurrerapen kontzeptual garrantzitsua da. Lege honetan esparru ezberdinak kontuan hartzen dira: prebentzioa, diagnostiko eta balorazioa, prestazio sozial eta

ekonomikoak, errehabilitazioa, lanbide integrazioa, gizarte zerbitzuak, esku hartze printzipioak, antolakuntzazko neurriak eta azkenik baliabideak.

1985. urteko errege dekretuak aurreko dekretuko gabeziak edo ahultasunak osatzen ditu. Bi helburu nagusi ditu:

Integrazioa bultzatzea: Suposatzen zen eskolaren baliabideak eta antolamendua aldatuz gero, ikastetxe berezietan eskolatutako ikasleak eskola arruntetan integratzea posible izango zela.

Eskola bera aldatzea: Antolaketa eta baliabideak aldatuz, ikasle guztiek bere garapen pertsonalean arazorik izanez gero, eta laguntza berezia behar izanez gero, integrazio proiektuak hori konpontzeko laguntza emango zuen.

1990. urtean LOGSE ezartzen da Espainian. Normalizazioaren eta integrazioaren printzipioak lehen aldiz azaltzen dira lege honekin.

Lege honetan aipatzen den aspektu bat eskolatze mota da. Hiru motatako eskolatzeak planteatzen dira: arrunta (ikasle gehienei mota hau proposatzen zaie), berezia eta konpartitua (goizez ikastetxe arruntetan eta arratsaldean hezkuntza bereziko ikastetxeetan).

Profesionalen ikuspuntua eta jarrerak aldatzea proposatzen du, gizartearen eta irakasleen jarrerak hain zuzen ere. Medina Balmaseda (2006) ren esanetan, prozesu integratzailearen garapenean garrantzia izan duen faktore bat da, irakasleek integrazioaren aurrean duten jarrera.

Hezkuntza bereziko ikastetxeen aldaketa eta giza baliabide eta baliabide materialen aldaketa proposatzen du. Hezkuntza Berezian diplomatutako profesionalak sartzeari.

Irakasleen taldean sartzeko baldintzak ere aldatzea proposatzen da. Zailtasun motorikoak edo zentzumenezko zailtasunak dituzten irakasleak lanean sartzeko aukera izatea.

LOGSE ren hezkuntza sistema muinbakarra da, ikasle guztiei hezkuntza esperientzia eta aukera berdinak eskaintzen dizkio. Integratzailea da, ikasle guztien beharrak ikasgelaren gaitasunetara, motibazioetara eta interesetara egokitzen ditu.

Barneratzailea da, haur guztiek daukate elkarrekin ikasi eta jolasteko eskubidea eta ez dira inoiz diskriminatuko.

Marchesi eta Martin (1990) en ustez, integrazioa prozesu dinamiko eta aldakorra da, eta bere helburu nagusia da, ikaslea ahalik eta hobekien garatzeko egoera hoberena bilatzea.

1.2. Ley: Atención a la diversidad

A la hora de realizar este trabajo he tenido en cuenta el marco legal vigente; la ley orgánica 2/2006 y de la Orden Foral 93/2008.

La ley orgánica 2/2006, de 3 de Mayo, de educación establece en su preámbulo que la atención a la diversidad es un principio que debe regir toda la enseñanza básica para proporcionar a todo el alumnado una educación adecuada a sus características y necesidades.

La diversidad es una realidad en los centros educativos que ha de ser asumida por todo el profesorado con criterios de NORMALIZACIÓN, ATENCIÓN PERSONALIZADA E INCLUSIÓN (OF 93/2008)

La flexibilidad del sistema educativo debe procurar medidas que se adecuen a las diferencias individuales de aptitudes, necesidades, intereses y ritmos de maduración de cada uno de los alumnos/as. De este modo se garantiza su desarrollo, se favorece la equidad y se contribuye a una mayor cohesión social. La atención a la diversidad es una necesidad que abarca todas las etapas educativas y a todo el alumnado OF 93/2008, atención a la diversidad)

El Real Decreto 1513/2006, de 7 de diciembre indica en cuanto a los principios pedagógicos de Educación Primaria que se pondrá especial énfasis en la atención a la diversidad del alumnado, en la atención individualizada, en la prevención de las dificultades de aprendizaje y en la puesta en práctica de mecanismos de refuerzo tan pronto como se detecten estas dificultades. Para que el alumnado con necesidad específica de apoyo educativo pueda alcanzar el máximo desarrollo de sus capacidades personales y los objetivos de etapa, se establecerán medidas curriculares y organizativas oportunas que aseguren su permanencia y su adecuado progreso. Entre

estas medidas se considerarán el apoyo en el grupo ordinario, los agrupamientos flexibles o las adaptaciones del currículo.

El artículo 7 de la Orden Foral de 93/2008 habla sobre las medidas de atención educativa. Los centros podrán adoptar medidas ordinarias o extraordinarias.

Las medidas ordinarias son aquellas en las que no se modifican los elementos perceptivos del currículo.

Las medidas extraordinarias son las adaptaciones curriculares que modifican los elementos de acceso y/o perceptivos del currículo.

Las adaptaciones curriculares están dirigidas al alumnado que presentan necesidades educativas derivadas de discapacidad o graves trastornos de conducta; dificultades específicas de aprendizaje; altas capacidades intelectuales; incorporación tardía al sistema educativo o aquellas derivadas de condiciones personales o sociales desfavorables.

Permitirá adecuar y adaptar el currículo ordinario a un alumno, priorizando, sustituyendo, modificando o eliminando algunos aspectos curriculares para facilitar el desarrollo de las competencias básicas. Pueden ser:

- De acceso, para aportar recursos, materiales o de comunicación que faciliten el desarrollo del currículo ordinario o de un currículo especial.
 - Presentan déficit o dificultades motrices o sensoriales que impiden o dificultan su acceso normal al currículo.
 - Requieren evaluación e intervención especializada.
 - Requieren la adopción de recursos y medios técnicos, sistemas complementarios o sustitutivos de acceso al currículo y/o comunicación el dominio y aprendizaje requieren una programación.
 - Afecta a la metodología y organización del aula.
- Significativa, para el alumnado que presenta un desfase de más de un ciclo o dos cursos y que afecte a la mayoría de las áreas o materias.
 - Dificultades y déficit de aprendizaje más graves y permanentes, que afectan al conjunto de las áreas.
 - Riesgo de un desfase creciente entre su competencia curricular y la del grupo de referencia.

- Riesgo de un desajuste y problemas de conducta.
- Requieren una programación distinta a la del grupo en todas o parte de las áreas.
- Requieren intervención/evaluación y asesoramiento de profesorado especialista.
- Objetivo: Hacer que estos alumnos progresen al máximo, en la medida de sus posibilidades, sin perder de vista los objetivos del grupo de referencia.
- La flexibilización de la duración de cursos o etapas.

En los documentos del centro se encuentra el plan de atención a la diversidad, que es el documento que recoge el conjunto de actuaciones, adaptaciones del currículo, medidas organizativas, apoyos y refuerzos que un centro diseña, selecciona y pone en práctica para proporcionar la respuesta más ajustada a las necesidades educativas, generales y particulares de todo el alumnado. La enseñanza en la escuela tiene que favorecer el desarrollo individual de cada niño, “ofreciendo respuestas adecuadas a las exigencias de comprensión de cada alumno” (Macías, 2001:596)

En este documento se concretan los procedimientos para la detección y valoración de las necesidades específicas de apoyo educativo, las medidas curriculares y organizativas previstas por el centro, los criterios para la toma de decisiones, las funciones y organización de los recursos personales para el desarrollo del plan, la colaboración con las familias e instancias externas y la evaluación y seguimiento del plan.

1.3. Oinarrizko gaitasunak

LOE 2/2006 -ren arabera gaitasunak, etaparen erreferente garrantzitsuak dira. Kurrikuloaren osagai garrantzitsu dira, irakaskuntza-ikaskuntza prozesua eta bere ebaluazioa antolatzeko balio handia dutenak. Egiten jakitearekin erlazionatutako ahalmenak dira. Formazio elementu hauetara, arlo, momentu, etapa, kurtsu desberdinetatik hurbildu behar da. Ebaluazio eta promozioa argitzeko erreferentzia puntu da.

Esan bezala, berritasun batzuk egon dira Hezkuntzaren alorrean eta, curriculumean aldaketak eman dira. Oinarrizko gaitasunak curriculumean sartzeak helburu batzuk ditu.

- Ikasitakoak integratzea, formalki ikasitakoak (arlotan edo irakasgaietan sartuak) eta informalki ikasitakoak eta ikasketa ez-formalak.
- Ikasitakoa integratu, eduki mota desberdinekin lotu eta egoera eta testuinguru desberdinetan behar dutenean modu eraginkorrean erabiltzea.
- Irakaskuntza orientatzea. Ezinbesteko edukiak eta ebaluazio irizpideak identifikatzen lagundu eta irakatsi eta ikasteko prozesuari buruzko erabakiak hartzea.

Baina, zer dira oinarrizko gaitasunak?

Oinarrizko gaitasunak zeintzuk diren aztertu baino lehen, gaitasuna definitzea komeni da. Gaitasun bat; pertsona batek, testuinguru zehatz batean lan bat egiteko edo egoera bat gainditzeko, dituen baliabide guztiak mugiarazteko eta erabiltzeko modua da. Gaitasunek, ikaskuntza maila eta mota adierazten dute.

Gerta daiteke pertsona bat oso jakintsua izatea, eta aldi berean, gai edo “konpetente” ez izatea. Konpetentea dela esan dezakegu, egoera edo testuinguru zehatz batean bere baliabide guztiak modu egokian erabiltzeko gai denean. Gaitasunaren definizioa eta gai izatea zer den ikusi ondoren, oinarrizko gaitasuna definitzea komenigarria da.

Oinarrizko gaitasuna: Pertsona batek, dituen baliabide guztiak modu egokian erabiltzen dituenean bere bizi-proiektua eraikitzeko eta bizi den gizartean murgiltzeko.

Oinarrizkoak dira honako hiru arrazoiengatik:

- Gehiengoak eskuratzeko aukera du.
- Bizitzaren alor askotan amankonunak dira.
- Ikasten jarraitzeko laguntzen dute.

Ezaugarri horiek betetzen dituzten ikaskuntzak zortzi dira. Hau da, zortzi gaitasunak:

1. Hizkuntza bidez komunikatzeko gaitasuna.
2. Matematikarako gaitasuna.
3. Mundu fisikoa ezagutzeko eta harekin elkarreraginean aritzeko gaitasuna.

4. Informazioaren tratamendua eta gaitasun digitala.
5. Gaitasun soziala eta herritartasuna.
6. Arte eta kultur gaitasuna.
7. Ikasten ikasteko gaitasuna.
8. Autonomia eta ekimen pertsonala.

Pertsona batek gaitasunak lortzea posible izateko, oso ondo definitu beharko ditugu lanak. Hain zuzen ere horretaz kezkatu edo arduratu behar da eskola, lan egokiak prestatzeaz eta aukeratzeaz. Ondo definitutako lanekin bakarrik dago gaitasuna. Gaitasunen nondik norakoa eta laburpena lehenengo gehigarrian ikusi daiteke (1. gehigarria: Gaitasunak)

1.4. Adaptación curricular

1.4.1. Curriculum egokitzapenaren testuinguraketa: fluxu diagrama

Sarriguren IP an eskaini didaten fluxu-diagraman oinarrituz esan dezaket ikasle bati curriculum egokitzapen bat prestatu eta egin baino lehen, prozesu bat jarraitu behar dela eskolan. Hasteko, esan beharra dago curriculum egokitzapen indibiduala ikasle baten zailtasun handiei erantzuteko baliabide eta tresna dela. Horrelako bat prestatu baino lehen, hausnarketa eta azterketa sakon bat egin da irakasle eta eskolako beste profesional batzuen artean. Ikaslearen ikaskuntza prozesuaren eboluzioa eta egoera (eskolan eta familia) sakonki aztertzen da.

Curriculum egokitzapen indibiduala diseinatzen hasi baino lehen, pausu edo urrats batzuk jarraitu behar ditugu eta hainbat dokumenturekin lan egin behar dugu. Gure abiapuntua, hezkuntzan egiten diren gauza guztiekin bezala, legea eta bertan arautzen diren dokumentu ofizialak izango dira. Kasu honetan, Hezkuntza Bereziaren inguruan egin diren arau eta dokumentuak kontutan hartuko ditugu. Horietako bat Aniztasun plana izango da. Bertan, eskolak aniztasunari emango dion trataera azaltzen da eta aspektu ezberdinak jorratzen eta zehazten ditu: eskolaren testuingurua eta ezaugarriak, helburuak, detekziorako prozedurak, hezkuntza behar berezien balorazioa, neurri kurrikular eta antolatzaileak, erabakiak hartzeko irizpideak, funtzioak, familiekin izango den harremana eta dokumentuaren ebaluazioa.

Ondoren, tutoreak eta Hezkuntza Laguntza Unitatearen (HLU) kideen arteko bilerak egiten dira. Bilera hauetan tutoreak bere gelako ikasleen inguruko informazioa jaso eta azaltzen du. Bere ustez zailtasun handiak edo laguntza berezia eta pertsonalizatuagoa behar duten ikasleen inguruan hitz egiten du. Horrela, hezkuntza beharrak berrikusi, antzeman eta baloratzen dira. Hezkuntza laguntza unitateak eskaera-orria pasatzen dio tutoreari eta bertan hainbat datu azaldu behar dira. Behin egina, Hezkuntza Laguntza Unitateak eskaera horren erregistroa egiten du eta barne analisi bat egiten du.

Hurrengo urratsean eskolako perfil garrantzitsu batek parte hartzen du, eskolako ikasketa buruak hain zuzen ere. Hezkuntza Laguntza Unitatearen eta ikasketa buruaren artean, neurrien proposamena eta baliabideen antolaketa egiten da. Erantzuna emateko, gela arruntean, errefortzuak edo bikoizketak planteatu daitezke ikaslearen egoera eta ezaugarrien arabera.

Ikasleak laguntza pertsonalizatuagoa edo arreta zuzena behar izanez gero, eskolako profesional garrantzitsu batzuen parte hartze zuzena prestatuko da. Hau da, PT, logopeda edo orientatzailearen parte hartzea. Ikaslearen beharrak oso espezifikoak baldin badira eskola kanpoko organoek parte hartu dezakete. Horietako bat, Nafarroan oso garrantzitsua dena, CREENA izango da.

CREENA, Nafarroako baliabide zentro garrantzitsua da. Hezkuntza Bereziaren arloaren inguruko baliabide materialak eta pertsonalak eskaintzen dizkie ikasleei. Hezkuntza Berezian espezializatuak dauden profesionalek (alderdi psikikoan, motorikoan...) lan egiten dute bertan eta ondorioz, esku hartzea eta emandako laguntza oso egokia da.

Ikasleak CREENako edo eskolako profesional berezi hauen (PT, logopeda eta orientatzailea) laguntza behar izanez gero, familiari informazio zehatza eman beharko zaio. Derrigorrezkoa da eta horretaz aparte, oso garrantzitsua da ikaslearen familiari informazio guztia jasotzea eta bere seme-alabaren ikaskuntza eta hezkuntza prozesuan inplikatzeko. 2. gehigarrian CREENaren inguruko informazio interesgarria azaltzen dut (2. gehigarria: CREENA)

Ebaluazio saioak egin eta ebaluazio psikopedagogikoa egiten da. Informazioa jaso eta txosten bat egiten da, txosten psikopedagogikoa. Ondoren curriculum egokitzapen individualera ailegatzen gara. Curriculum egokitzapen individuala bi motatakoak izan

daiteke, esanguratsua edo ez-esanguratsua. Ikusten denez, curriculum egokitzapenera ailegatu baino lehen urrats batzuk jarraitu behar dira. Ez da berehalako erabaki bat, baizik eta hausnarketa eta azterketa sakon baten emaitza.

Hezkuntza behar bereziak dituzten ikasleen errolda osatzen da eta EDUCAn horrela argitaratzen da.

Prozesu luze honetan aniztasunaren trataeraren jarraipena, berrikusketa eta aurreikuspena egin behar da.

Eskola garaian garrantzitsua den beste aspektu bat promozioa da. Ziklo bakoitzaren amaieran ikaslearen promozioaren inguruko azterketa egingo da pasatzen den edo errepikatzen duen erabakitzeko. Promozionatu behar ez duten ikasleen txosten bat egin behar da. Lehen Hezkuntza amaitzerakoan informazio eta txosten guztiak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzara pasako da.

Amaitzeko, esan beharra dago oso garrantzitsua dela prozesu luze eta konplexu honen jarraipena eta ebaluazioa egitea. Hau da, prozesua ematen den heinean jarraipena eta ebaluazioa egin behar da hobekuntzak emateko helburuarekin.

Azaldu dudan prozesua 3. gehigarrian laburtzen da fluxu-diagrama baten bitartez (3. gehigarria: fluxu-diagrama)

1.4.2. Adaptación curricular: concepto y tipos

A la hora de hablar sobre el concepto de adaptación curricular y definir el mismo, me ha parecido interesante partir de definiciones que han hecho diferentes personas. Las definiciones las he conseguido el 7 de mayo de una página web (<http://www.psicopedagogía.com/>), un portal que proporciona información y recursos útiles, tanto para profesionales del sector educativo (profesores/as, orientadores/as, psicólogos/as, pedagogos/as, psicopedagogos/as..) como para padres que desean conocer más acerca de la educación de sus hijos/as. He seleccionado tres definiciones:

Modificaciones que se hacen en el currículo (objetivos, contenidos, metodología, evaluación) a fin de adaptarlo a las características y peculiaridades de los sujetos.

Es una respuesta específica y adaptada a las necesidades educativas especiales de un alumno/a que no quedan cubiertas por el currículo común.

Son las modificaciones que se hacen en el curriculum de forma significativa o no, para la mejora de la consecución de los objetivos, a los cuales un grupo o un alumno/a tiene dificultad en alcanzar

A continuación voy a desarrollar el apartado de la adaptación curricular tomando como referencia el documento de la autora Marchena, R. Documento realizado en el año 2006 y el cual he recogido de internet el 14 de mayo en la página web del a Universidad de Las Palmas de Gran Canaria (<http://www.personales.ulpgc.es>)

En su opinión podemos conceptualizar las adaptaciones curriculares como el conjunto de modificaciones que se realizan en los diversos elementos del currículum con la finalidad de dar respuesta a las dificultades de aprendizaje que se presentan en diferentes situaciones, grupos y/o personas.

Queda claro por tanto que las adaptaciones curriculares son cambios que se realizan en el currículum pensando en el bien del alumno/a. Estarán relacionados con el tipo de respuesta educativa que ofrece el centro, puesto que cuanto más innovación didáctica y organizativa de un colegio, menores serán las modificaciones.

Para realizar cualquier adaptación debemos tener una concepción educativa desde la que consideramos que el alumnado, independientemente de sus características, debe tener un mismo currículum (con las debidas adecuaciones). Esta concepción se incorporó en el sistema educativo español a partir de los años noventa. Anteriormente se pensaba que cuando un alumno/a tenía problemas para aprender debía trabajar un currículum diferente. Este aspecto ocasionaba exclusión. Ese alumnado tenía que aprender cosas diferentes. El sistema educativo tradicional configurado según el modelo instructivo y de transmisión, no daba cabida a diferencias individuales. Por ello es necesario avanzar hacia un modelo educativo en el que todos puedan ser atendidos educativamente en el espacio menos restrictivo posible, un modelo educativo de promoción y desarrollo. Exige un nuevo planteamiento de escuela, una escuela abierta a la diversidad, la escuela para todos, y una escuela flexible capaz de responder a las diferencias que nos manifiestan los alumnos/as. En definitiva, una escuela inclusiva.

Para poder ofrecer un currículum común, es necesario diseñar un currículum abierto y flexible. Si los objetivos y contenidos que planificamos son muy concretos y cerrados,

las adaptaciones no son viables y para esos casos es necesario un currículum aparte. En cambio, si se concretan bien las metas y contenidos genéricos, se pueden hacer varias adecuaciones y concreciones en función de las características del alumnado.

El profesor/a puede tener alumnos/as que no llegan a alcanzar lo marcado para el grupo clase y que necesitan más ayuda que el resto de los compañeros. En este momento aparece la necesidad de realizar una adaptación curricular. Como conclusión podemos decir que llegamos a ella por la flexibilidad que tiene el currículum.

En definitiva, una adaptación curricular no consiste en un currículum independiente que ofrecemos al alumnado que posee necesidades educativas especiales. Una adaptación curricular partirá siempre del currículum común y, siempre que éste sea abierto y flexible, se irá configurando en la medida que se vayan haciendo ajustes, mayores o menores, a cualquiera de esos objetivos, contenidos, metodología y/ evaluación. Podemos hacer la siguiente clasificación.

Adaptaciones Curriculares y elementos que modificamos

- **Adaptaciones de acceso al currículum**
Son adecuaciones que se realizan en los recursos, en los espacios o en la comunicación, con la intención de que el alumno/a que presenta necesidades educativas especiales acceda con más facilidad al currículum general. Algo así como facilitar el que estos estudiantes aprendan, no tanto modificando lo que se aprende, sino lo que permite adentrarse en esos aprendizajes.
- **Adaptaciones de los elementos básicos del currículum**
Se modifican algunos elementos curriculares. Dentro de este grupo podemos hablar de: Adaptaciones en el cómo enseñar y evaluar: modificaciones en los métodos de enseñanza o de evaluación.
Adaptaciones en el qué y cuándo enseñar y evaluar: modificaciones en los objetivos, contenidos y criterios de evaluación.

Teniendo en cuenta la intensidad de los ajustes podemos hablar de:

- **Adaptaciones Curriculares no significativas:**
Modificaciones que se realizan en los diferentes elementos de la programación diseñada para todos los alumnos/as de un aula o ciclo para responder a las diferencias individuales. No afectan prácticamente a las enseñanzas básicas del currículo. Suponen diferencias respecto a los planteamientos curriculares establecidos para todos sus alumnos, pero no implican eliminaciones en los aprendizajes considerados básicos o esenciales del currículo oficial. Generalmente sólo se extienden al cómo enseñar y evaluar.
- **Adaptaciones curriculares significativas**
Modificaciones que se realizan desde la programación y que implican la eliminación de algunas de las enseñanzas básicas del currículo oficial: objetivos, contenidos y criterios de evaluación..

Nivel de las Adaptaciones Curriculares

Según la unidad organizativa escolar desde dónde van a ser desarrolladas (en el Centro, el Aula o con el Alumno Individualmente) las adaptaciones curriculares poseen tres niveles: adaptaciones curriculares de Centro, adaptaciones curriculares de aula, y adaptaciones curriculares individuales (ACI).

1. Adaptaciones Curriculares de Centro

Si los centros realizan una serie de adecuaciones con la intención de responder a la diversidad del alumnado decimos que estamos ante las Adaptaciones Curriculares de Centro y quedan reflejadas en los correspondientes Proyectos Educativos de Centro (PEC), Proyectos Curriculares de Centro (PCC) o en la Programación General Anual.

2. Adaptaciones Curriculares de Aula

Las adecuaciones curriculares que el profesor/a tutor/a, bajo el asesoramiento de los especialistas, desarrolle en este espacio didáctico es lo que conocemos como adaptaciones curriculares de aula. Las adaptaciones curriculares de aula deben reflejarse en la Programación de Aula.

Las adaptaciones de aula ofrecen dos posibilidades. Por una parte, que las decisiones tomadas para los alumnos/as con necesidades educativas especiales

pasen a formar parte de los planteamientos curriculares a seguir con todos los alumnos/as del aula (cambiar la metodología para todos, material variado, trabajos cooperativos...). Afectan a todo el alumnado aunque, en un principio, se estén utilizando para responder a las necesidades educativas de algunos de ellos. Hablamos de adaptaciones de aula generales. Por otra parte, que las medidas o decisiones tomadas afecten exclusivamente al alumno con necesidades. En ese caso se habla de adaptaciones específicas.

3. Las Adaptaciones Curriculares Individualizadas (ACI)

Se adecua el currículo según las características individuales que presenta el alumno/a. No por ello, se dejan de seguir aplicando desde el aula y el centro las debidas adaptaciones. A todo estudiante al que se le ha elaborado una ACI, también se le está desarrollando una adaptación de aula y de centro. Sino, el compromiso frente a las dificultades de aprendizaje reside solo en los especialistas.

Las ACI se elaboran para algunas áreas o bloques temáticos, quedando las restantes áreas y bloques del currículo acomodados a lo que se haga desde la programación de aula.

Las funciones de una ACI suelen determinarse en los siguientes términos:

Define la respuesta educativa que se va a ofrecer a un alumno/a con necesidades educativas especiales de forma que queda especificado con claridad el proceso educativo que se va a seguir

Posibilita que desde las programaciones de aula se realicen los ajustes precisos para responder a las necesidades educativas especiales del alumno/a de que se trate.

Facilita la atención coordinada de los diferentes servicios educativos, internos o externos al centro (profesor/a de educación especial, profesor/a tutor/a, especialista en audición y lenguaje...).

Especifica y justifica la necesidad de ciertos recursos concretos, así como los criterios para que ya no sean precisos.

Sirve de referente para la evaluación de enseñanza – aprendizaje así como de los resultados alcanzados por el alumno/a.

En el momento en que a un alumno/a se le realiza una ACI, entra en juego la intervención educativa de nuevos profesionales. Al tutor/a se le une el profesor/a de educación especial, en ocasiones el de audición y lenguaje y, si tuviera una discapacidad visual, recibiría también la ayuda de un profesor/a de apoyo a invidentes de la ONCE. Estos profesionales estarán a veces en la misma aula referente y, otras veces, en el aula de apoyo del Centro.

1.4.3. Curriculum egokitzapenaren irizpide psikologikoak

Jarraian, Trébol (2010) psikologoaren ikuspegitik curriculum egokitzapen batean kontutan hartu behar diren irizpide psikologikoak azaltzen ditut. Gure gelako ikasle batek zailtasun handiak dituenen eta atzerapena azaltzen duenean, ikaskuntza prozesuan laguntza emateko helburuarekin, egokitzapen kurrikularra egitea aukera bat izan daiteke. Egokitzapen kurrikularra egiteko baldintza zehatz batzuk bete behar dira, baina kontutan hartu beharreko baliabide garrantzitsua da. Esan beharra dago indibiduala izango dela eta ondorioz, ikasle bakoitzari berea egingo zaiola antzematen diren beharren arabera.

Curriculum egokitzapena zer den ulertzeko, garrantzitsua izango da definizio batetik abiatzea. "Curriculumaren osagai bakar edo gehiagotan edo/eta harengana heltzeko elementuetan egindako aldaketa multzoa da." (Trébol, 2010, 255)

Curriculum egokitzapenak ez dira guztiak maila berekoak. Bi motatakoak izan daitezke; esangura txikikoak eta handikoak.

1. Esangura txikiko egokitzapenetan, curriculumera heltzeko elementuetan aldaketak egiten dira. Aldaketak honako aspektu hauetan egin daitezke; giza baliabideak, espazioak, gelaren antolaketa, baliabide didaktikoak, taldekatzeak eta ordutegia. Ez dute curriculum ofizialaren oinarritzko irakaskuntzan eraginik.
2. Esangura handiko egokitzapenetan curriculumeko oinarritzko elementuetan (helburuak, edukiak, metodologia eta ebaluazioa) moldaketak egiten dira. Kontutan hartu behar dugu ikasle bakoitzaren gaitasunak, zailtasunak eta ikaskuntza –erritmoa. Hau da, curriculum ofizialaren oinarritzko irakaskuntzan aldaketak egitea suposatzen dute.

Curriculum egokitzapen bat egiteko hainbat aspektu psikologiko kontutan hartuko ditugu:

- Irakaslearen jarrerari dagokionez, zorrotza, zehatza eta arduratsua izan behar da. Hau da, hasiera batean ezarri duena betez eta betearaziz. Hartutako erabakiak amaiera arte eramaten saiatu behar da. Hala ere, egoera zehatz batek eskatzen badu, malgutasuna adierazi behar du. Baina aldi berean hurbila izan behar da, ikasleari konfiantza emanaz eta iritziak azaltzeko aukera emanaz. Ikasleak gertutasuna sentitu behar du.
- Curriculuma ikaslearen aurrezagutza, interes eta beharretara egokitu behar dugu. Ikaslearen gaitasunetatik abiatu behar gara eta gure helburuak, ikasleak lortzeko modukoak izan behar dira. Erreferentzia kurtso bat izan behar da, baina prozesuan dauden helburuak izan behar dira abiapuntua, ikasleak lor ditzakeen helburuak.
- Jarduerak prestatzerakoan kontutan hartu beharko dugu lankidetzaren eta parte-hartze jarreraren sustatzea.
- Prestatzen ditugun ekintza eta jardueren bidez autonomia sustatu behar da. Garrantzitsua da ikasleek jarrera autonomoago bat lortzen joatea. Beraiek, bere gaitasunak eta zailtasunak ezagutzea. Gaitasunak erabiltzea ahuleziak edo zailtasunak gainditzeko.
- Irakasleak modu argi eta zuzen batean emango dituen aginduak eta azalpenak. Errazak, motzak, argiak, zuzenak, koherenteak eta zehatzak izan behar dira.

1.5. Teoria psikologikoak

Hezkuntzaren psikologiaren barnean teoria desberdinak aurkitzen ditugu:

Maiatzaren 19an <http://hezkuntza-irakaskuntza.blogspot.com> orrialdetik lortutako informazioa kontutan hartuz, jarraian azaltzen dena azaldu dezakegu.

Gure jarrera ulertzeko, lehenengo pertsonalitatea definitu behar dugu. Honako hau izan daiteke pertsonalitatearen definizioa:

Pertsonalitatea, pertsona baten portaera, pentsamendu eta sentimenduak mugatzen duten sistema psikofisiko iraunkor eta berezia da, pertsonaren bere ingurugirora moldatzearen. Pertsonak jokatzen duten era ere bada, indibidualki nahiz sozialki. Pertsonalitatea bizitzan zehar garatzen eta aldatzen da, herentzia genetiko eta gizabanakoaren ingurugiroaren elkarrekintzen emaitza baita; aldi berean, beste pertsonekin partekatzen diren portaera eta sentimenduen bitartez, gizabanakoaren nortasuna eratzen du besteez.

Gure pertsonalitatea bizitzan zehar garatzen eta aldatzen da eta ingurugiroaren eta gure herentzia genetikoaren emaitza dela esan dezakegu. Pertsonalitatea indibiduala eta soziala izaten da. Batetik, indibiduala pertsona bakoitza munduan bakarra delako; bestetik, soziala egiten ditugun ekintzei buruz kontzienteak garelako eta gure inguruko pertsonekin harremanak izaterakoan gure pertsonalitatea baldintzatzen dugulako.

KONDUKTISMOA (Skinner)

Horrela, konduktismoarentzako gure esperientzietatik ikasten dugu eta hauek gure jarrera eta izaera baldintzatzen dute. Gure jokabideak baldintzatzeko orduan, errefortzuak hartzen dute parte. Gure pertsonalitateak ingurugiroan ez ditu aukera askeak sortzen, estimuluen bidez mugitzen baita. Horrela, zerbait ondo egiten dugunean, laudorioak jasoko ditugu eta kontrako kasuetan, zigorra jasoko dugu eta errua sortaraziko digu.

Skinner-en ustez, laudorioa eta errua irrazionalak dira eta hori dela eta, ez dago duintasunaren askatasunik, gure ingurugiroaz baldintzatuta gaudelako. Jokatzen dugu arrazoi batzuegatik, inguruan zerbait gertatzen da eta horregatik sentitzen eta pentsatzen dugu modu batean edo beste batean.

Horrela, errefortzu eta zigorren arabera jokatzen dugu eta hauek positiboak izan daitezke.

Errefortzu positiboa, zerbait ondo egiten dugunean jasotzen dugun sari positiboari deritza.

Errefortzu eta zigorrekin umearen pertsonalitatea moldatzen ari gara, bere jarrera baldintzatuz sarien eta zigorren bidez. Dena den, esan beharra dago normalean

zigorrek gehiago erabiltzen ditugun arren, askoz ere positiboagoa izaten dela errefortzuen bidez jokatzea.

Jarraian konstruktibismoaren autore garrantzitsuen ekarpenak azaltzen ditut. Informazioa web orrialde batetik lortu dut (<http://konstruktibismoa.blogspot.com.es/>) maiatzaren 19an.

VIGOTSKY

Vigotskyren obran kontzeptu batzuk agertzen dira garrantzia bereziz: Bere posizio teorikoak, Garapen Hurbileko Eremua (GHE), andamiajea, erraminta psikologikoak, erdikaria, internalizazioa, ... Hala eta guztiz ere, bere bizitzan zehar bere lanetan gai ezberdinak garatu zituen. Hala ere, garapen Hurbileko Eremuari garrantzia handiena emango diogu.

Garapen hurbileko eremuak espazioari dagokio. Haurrak jadanik dituen abileziak dira eta ikasi ditzakeenak heldu baten bitartez. Garapen Hurbileko Eremua (GHE) kontzeptuak esan nahi du, haurraren abileziak eta helduaren erlazioaren artekoa. Lehendabiziko pausua, haurrak lan egin dezakenean eta ariketa edo eta arazoak konpondu ahal dituenen beste baten laguntzarik gabe. Garapen Potentzialaren maila da, haur bati heldu batek gidatzen dionean edo beste norbaitek laguntzen dionean. Eta bien arteko desberdintasunari Garapen Hurbileko Eremua deitzen diogu. Heldu batek (edo beste berdin batek, ikaskide bat izan daiteke) bitartekari lana egiten duenean haurra eta eginbeharraren artean, honi andamiajea deitzen diogu.

KONSTRUKTIBISMOA

Konstruktibismoaren helburu garrantzitsuena ikasketa esanguratsua lortzea da. Ikasketa esanguratsuaren aitzindaria Ausubel izan zen.

Ikasketa esanguratsuaren ezaugarriak eta baldintzak azaltzeko bi ikasketa mota bereiztuko ditugu; alde batetik aurkikuntzako ikasketa eta bestetik harrerako ikasketa.

Ikasketa esanguratsua, subjektuak erlazio esanguratsu bat, hau da, erlazio substantzialak eta ez hautazkoak, aurretiko ezaguera eta ikasi behar duenaren artean izatea esan nahi du. Ikasketa hau aurkikuntzaz edo harreraz eman daiteke eta honek errepikakor nahiz ulerkor memoria erabiltzea inplikatzeko dakar.

Aurkikuntzako ikasketak, ikasleak informazioa ordenatzea, estruktura kognitiboarekin integratzea eta berrantolatu edo transformatu ezarritako konbinazioa dakar, nahi den ikasketa lortzeko. Honen ondorioz, ikasketa motela eta elitista izatera iritsi daiteke, ikasleak beren kabuz ikasketa guztiak aurkitu beharko balute ez lirateke denborarik egongo aztergai guztiak emateko.

Harrerako ikasketa, ordea, ikasleak edukiak agertzen diren bezala barneratzea, behar duen momentuan berriz errekuiperatzeko, soilik eskatzen du. Baina ikasketa mota hau zentzua izateko subjektuak operazio formalen etapa eta aurreko ezagupenak berriekin lotzeko motibazioa izan behar du.

Ausubelek dioenez bi ikasketa mota hauek ez dira kontrakoak izan behar, biak eraginkorrak izan daitezke ezaugarri batzuk betetzen badira. Horrela eskola hezkuntza bi eratan eman daiteke, estrategia gisa, eta ikasketa esanguratsua, memoristiko eta errepikakorra lortu daiteke.

Gainera, oso garrantzitsua da errepikakor ikasketa konstruktibismoaren teorien kontra dioala ez pentsatzea, ikasketa esanguratsua lortzeko beste bide bat besterik ez baita. Badaude hautazko ikasketak zentzurik ez dukatenak eta memoriaz ikasi egin behar direnak eta gainera ez gaituztela errazten beste testuinguruko ikasketak, adibidez; abezedarioa.

Konstruktibismoaren ikuspuntutik memoria adikorra da ikasketa zentzuarekin eta esanahiarekin bermatzen duena, eta ez errepikakorra.

Ikasketa esanguratsuarekin jarraituz, hainbat abantaila aurkitu ditzakegu: lehenengoa, informazioa epe luzerako oroimenean gordetzen dela da eta bigarrena, informazio berriaren eskuraketa errazten duela da, jabekuntza berria aldeztatik aurretiko informazioarekin era esanguratsuan erlazionatzen delako.

Ikasketa esanguratsua sustatzeko ikasleak eta irakasleak hainbat jarduera desberdin egin behar dituzte. Ikasleak ulerkortasunean oinarritutako ikasketa lortzeko hainbat ariketa egin behar ditu, baina aldeztatik bereizketa bat egin behar dugu nahitako ikasketa (ikasleak ikasteko intentzioa duenean ematen da) eta ustekabeko ikasketaren (intentzio hau ez dagoenean ematen da) artean.

Pentsatu daiteke, nahitako ikasketa ustekabeko ikasketa baino emaitza hobeagoak eman ahal dituela, hala ere, ikerketek esaten dute emaitzak ikasleak egiten duen prozesamenduaren arabera ematen direla. Hau da, nahiz eta ikasle batek jarduera bat intentzios burutu eta behin eta berriz errepikatu, jarduera horrek ulerkortasunera gidatuta ez badago, emaitzak ez dira oso onak izango. Baina, jarduera bera eskasa eta ustekabekoa bada eta ulerkortasuna errazten du, emaitzak askoz hobeagoak izango dira.

Irakasleak ikasketa esanguratsua sustatzeko, ikasleen aurre ezagutzak ezagutu behar ditu. Aztertu behar du aurkeztuko duten informazioa aldez aurreko informazioarekin erlazionatu ahal den. Gelako materialak modu logiko eta hierarkiako batean ordenatu behar ditu, kontuan izanda garrantzitsuena ez dela edukia baizik eta eduki horren aurkezpena. Ikasleen motibazioa kontutan izan behar du.

Ikasketa esanguratsua sustatzeko kontutan hartu behar dugu:

Aurre ezagutzak ezagutu behar dira, klasea hasi baino lehen eta ondoren irakasleak irakasgaiari buruzko sarrera egin behar du, irakasgaiaren helburuak azalduz. Irakasleak marrazkiak, mapa kontzeptualak, diagramak edo argazkiak erabiliz adibideak erabili beharko ditu, ikasketa esanguratsua lortzeko.

Edukia garatzerakoan irakasleak antolaketa logiko bat jarraitu behar du. Edukiak orokortuz eta konparazioak eginez. Interesgarria da irakasleak bere esperientziari buruz hitz egitea. Irakasleak edukiarekin motibatua egon behar da.

Klasea bukatzeko, irakasleak oinarrizko ideien laburpen bat egin beharko du eta klase bakoitzeko lehenengo minutuetan beste klaseei buruzko sintesi bat egin beharko du.

PRINTZIPIO PSIKOPEDAGOGIKOAK

Lan hau prestatzerakoan konstruktibismotik abiatu gara. Hau da, gizakien garapen eta ikaskuntza prozesuak azaltzen dituzten teoria desberdinen ezagutzak biltzen dituen eredu pedagogikoa. Kontzepzio konstruktibista edo konstruktibismoa osatzen duten teoria desberdinek bi baldintza betetzen dituzte. Alde batetik, beren ezagutzaren eraikuntzan haurren rol aktiboa lehenetsi. Bestetik, irakasleari, irakatsi beharreko ezagutzaren eta ikasleen arteko bitartekari papera ematea. Hau da, irakaslea, ikaslearen eta ezagutzaren artean zubi gisa parte hartuko duen elementu edo hobeto

esanda, pertsona garrantzitsua dela esan dezakegu, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren bitartekaria. Esan beharra dago irakasleen jokabideek ikasleen ikaskuntza prozesuetan eragina izango du.

Aipatutako aspektuak kontutan hartuz, ikuspuntu konstruktibista honako oinarri teoriko hauetaz osatzen da:

Lehenik eta behin, Piaget-en Teoria Genetikoa. Ikasleak bere ezagutza eta ikasketen eraikuntzan rol aktiboa dauka, aurretik ezarriak eta aztertuak dituen edukien eta ikasi beharreko edukien arteko eskema berriak egiten dituelarik. Informazioaren prozesamenduaren teoriaren arabera, haurrek informazioaren kodifikazio, metatze, antolamendu eta berreskurapenerako estrategiak dituzte, eta horrek ikasitakoaren barneratze, aplikazio eta orokortze egokiagoa dakar.

Ausubelen teoriaren arabera, eskolan egiten diren ikasketak esanahiez beteta egon behar dira. Esanahi logikoaz, psikologikoaz eta motibazioaz beteta.

Haurrak bere ikaskuntzak era egokian kontrolatu eta planifikatu ditzakeela barneratu behar du. Hori dela eta, haurrak bere ikaskuntzetan eta ikasketetan lortutako arrakasta, aurretik egindako ahaleginaren eta esfortzuaren ondorio bezala ikusi behar du, eta ez bere kontroletik kanpoko arrazoen ondorio bezala.

Azkenik, Vigotsky-ren Teoria Soziokulturala kontutan hartu izan da. Haurraren benetako garapena ezagutzea derrigorrezkoa da, haurra bideratzeko eta garapen zonalde hurbilean lan egiteko. Irakasleak eraikitzaile funtzioa izango du, beraz, irakaskuntza-prozesua hasieratik zuzendu beharko du, pixkanaka-pixkanaka ikasleari gero eta kontrol gehiago utziz.

1.6. Dificultades del aprendizaje

Antes de empezar a desarrollar el tema me ha parecido interesante utilizar definiciones dadas por diferentes personas y diferentes puntos de vista. Para ello he utilizado la enciclopedia online (<http://es.wikipedia.org/>)

Grupo de alteraciones que se manifiestan en dificultades en la adquisición y uso de habilidades (escucha, habla, lectura, escritura, razonamiento o habilidades matemáticas). Estas alteraciones tienen repercusión en una o más áreas del

aprendizaje: lectura, escritura o cálculo. El alumno/a logrará los aprendizajes con apoyo personalizado y otros métodos de enseñanza que difieran de los convencionales.

Autores han definido el término de dificultades del aprendizaje de diferente manera. A continuación cito varias definiciones que me han parecido completas.

Dificultad de aprendizaje se refiere a uno o más déficits significativos en los procesos de aprendizaje esenciales que requieren técnicas de educación especial para su remediación. Los niños/as con dificultades de aprendizaje demuestran generalmente una discrepancia entre el logro actual y el esperado en una o más áreas tales como el habla, la lectura, el lenguaje escrito, las matemáticas y la orientación espacial. La dificultad de aprendizaje referida no es el resultado de deficiencias sensoriales, motrices, intelectuales o emocionales, o de ausencia de oportunidades para aprender. Los déficits significativos se definen en términos de procedimientos aceptados de diagnóstico en educación y en psicología. Los procesos de aprendizaje esenciales son los habitualmente referidos en la ciencia de la conducta como implicada la percepción, la integración y la expresión, sea verbal o no verbal. Las técnicas de educación especial para la remediación se refieren a la planificación educativa basada en procedimiento y resultados diagnósticos.

La definición del Acta de Educación para Personas con Incapacidades (IDEA) dice:

“El término “dificultad del aprendizaje específico” refiere a un trastorno en uno o más de los procesos psicológicos básicos necesarios para entender o usar la lenguaje, hablada o escrita, que puede manifestar en la capacidad imperfecto para escuchar, pensar, hablar, leer, escribir, o hacer las matemáticas. El término incluye condiciones como incapacidades perceptual, trastornos cerebrales, disfunción mínima del cerebro, dislexia, y afasia del desarrollo. Estos términos no incluyen ninguna dificultad del aprendizaje que tiene su origen de problemas de vista, oído, ni motor, ni de retraso mental, deficiencias emocionales, ni de desventajas ambientales, culturales ni económicas”

La definición del Comité Nacional Conjunto para Dificultades del Aprendizaje (NJCLD) dice:

Las dificultades del aprendizaje representan un término genérico que se refiere a un grupo heterogéneo de alteraciones que se manifiestan por dificultades importantes en la adquisición y utilización del lenguaje, la lectura, la escritura, razonamiento o habilidades matemáticas. Estas alteraciones son intrínsecas al individuo, y se considera que se deben a una disfunción en el sistema nervioso central. Aun cuando una dificultad de aprendizaje puede ocurrir junto a otras condiciones deficitarias (como deficiencias culturales, instrucción inadecuada o emocional) o influencias ambientales (como diferencias culturales, instrucción inadecuada o factores psicogénicos), no son el resultado directo de estas condiciones o influencias.

A continuación voy a hablar de varias características de las dificultades de aprendizaje. Para ello utilizo la información que he conseguido de una página web (<http://liviarodriguez.wordpress.com>) el 3 de mayo. En concreto se trata de un blog que ha creado Livia Rodríguez del Campo para la asignatura “Nuevas tecnologías aplicadas a la educación especial” del curso de tercero de Magisterio de Educación Especial.

A pesar de que cada autor explica el término a su manera, casi todos coinciden en que hay dos grandes tipologías, por una parte las que provienen de factores internos y por otra, las que provienen de factores externos.

- Externos: Repercuten en el alumno/a sin que propiamente se originen o estén en él; le llegan desde fuera (ej: padres, familia, contexto social, etc.). Pueden provenir de: *familia* (hábitat, pautas y actitudes educativas inadecuadas o deficientes, problemas familiares), *escuela* (absentismo, inadecuación de metodología y recursos, etc; se pueden atribuir al profesorado o al centro) *sociedad* (marginación social, deprivación sociocultural, pobreza).
- Internos: Residen y se originan en el sujeto mismo y son fruto de su modo de ser. Pueden manifestarse en una baja motivación, falta de atención, etc. Pueden ser: físicos (diferentes enfermedades), emocionales (relacionados con la personalidad del sujeto), intelectuales (provienen de un escaso desarrollo intelectual, aptitudes intelectuales deficitarias o mal estimuladas, estrategias

pobres de pensamiento), de lenguaje (oral o escrito), motivacionales (desinterés, cansancio, falta de compromiso con el trabajo escolar, actitudes negativas hacia la escuela, etc.), sensoriales (déficit en algún sentido presente en el aprendizaje) o neurológicos (relacionados con el SN y con repercusiones claras en el desarrollo intelectual, del habla o del lenguaje).

Perfil del alumnado con Dificultades de Aprendizaje:

Teniendo en cuenta que las dificultades de aprendizaje pueden ser muy diferentes, es difícil crear un perfil único. Aún así hay aspectos generales que pueden dar pistas claras al profesorado. Los aspectos a tener en cuenta son los siguientes:

- Déficit académico: rendimiento académico inferior al que cabría esperar por su edad (3 o 4 años por debajo de su edad) sobre todo en lenguaje hablado, escrito y matemático.
- Déficit cognitivo: procesan la información de una manera inadecuada y lenta. Estrategias de pensamiento inadecuadas.
- Deficiencias en las habilidades para el estudio y en el uso de estrategias de aprendizaje.
- Bajo nivel de habilidades sociales: comunicación y relación con los demás.
- Baja motivación: fuertes sentimientos de frustración
- Frecuentes problemas de adaptación al centro escolar: algunos presentan problemas desde los primeros años de escolarización.

Repercusiones Educativas de las Dificultades de Aprendizaje. Intervención Educativa:

En el ámbito escolar el alumno/a tiene un sentimiento fuerte de frustración, impotencia, inferioridad, fracaso y de desánimo. Al compararse con sus compañeros/as se da cuenta que no puede, que no sabe hacer, que le cuesta más tiempo y que no obtiene los mismos resultados. Por ello, su autoconcepto y desarrollo de la personalidad se puede ver afectada.

En el ámbito familiar también se viven las dificultades del aprendizaje con preocupación. Los padres ven que su hijo/a no progresa como el resto de sus compañeros y llegan a sentirse angustiados y desilusionados. Por ese motivo pueden

recurrir de manera desesperada a medios, recursos y estrategias que a la larga no sean necesarias ni adecuadas.

En el profesorado se pueden crear también situaciones de angustia y desesperación. El ver que el alumno no avanza puede fomentar el uso de medidas precipitadas, desorientadas y mal planteadas. En opinión de Salazar González (2010) la formación de los docentes no puede reducirse únicamente a la adquisición del conocimiento teórico sino que se debe capacitar a los profesionales de la educación para que puedan intervenir en la práctica educativa.

Viendo las situaciones que se pueden crear, el sistema educativo debe tratar las necesidades educativas especiales y debe preparar una serie de medidas ordinarias y extraordinarias (programas de educación compensatoria, equipos interdisciplinares bien dotados, clases de apoyo, formación específica del profesorado en ACI's).

A la hora de preparar la intervención educativa se debe tener en cuenta la edad del alumno/a, el nivel de profundidad del problema, las causas y los factores asociados.

Se recomienda llevar a cabo las siguientes pautas de intervención:

- Realizar ejercicios sencillos graduados en dificultad y apoyados en materiales y recursos variados y atractivos
- Utilizar ejemplos y actividades diferentes para la consecución de un mismo fin
- Usar muchos apoyos audiovisuales y manipulativas.
- Valorar la capacidad de esfuerzo. Dar más valor a la calidad del trabajo que a la cantidad.
- El refuerzo positivo da buen resultado.
- Evitar castigos y descalificaciones

1.7. Eskola garaian ematen diren nahaste psikoebolutiboak eta psikopatologiak:

Alderdi hau garatzerakoan Trébol (2010) en ikuspegia kontutan hartu dut. Hasteko, nahaste psikoebolutiboa eta psikopatologia zer den definitu behar dugu. Nahaste psikoebolutiboa zerbait pairatzen duen edo gaixorik dagoen psikea esan nahi du. Psikopatologia, ezaugarri psikologiko jakin batzuk direla medio, errealizazio

biologikorako edo norberaren errealizatorako arazoak dituzten gizakiez arduratzen den diziplina da (Bautista, 1993).

Castanedok (1997) dioenez, nahaste psikoebolutiboak bi multzo handitan sailkatu ahal ditugu. Alde batetik irakurketa eta idazketa prozesuarekin erlazionatutakoak eta bestetik, erlazio, harreman eta portaerarekin erlazionatutakoak.

Irakurketa eta idazketa prozesuarekin erlazionatutako ikasleekin aurre zaintza edo prebentzioa egitea oso garrantzitsua da. Arreta, lateralitatea, antolaketa eta txukuntasuna, oinarrizko prozesu kognitiboak kontziente egin eta nortasun eta harreman sozialei garrantzia emanaz. Irakurketa eta idazketa prozesuarekin loturiko nahaste nagusiak honako hauek dira: mintzaira, lengoaia, ahoskera, arreta gabezia, hiperaktibitatea eta dislexia.

Erlazioa, harreman eta portaerarekin erlazionatutako nahaste nagusiak honako hauek dira: arazo psikosomatikoak, down sindromea, autismoa, arazo motorikoak, oligofreniak eta gaidotazioa. Nahaste psikoebolutibo hauekin aspektu hauek landu behar ditugu; jokabideak goiz detektatu, jarraipen pertsonala, arreta eta garapena.

Psikopatologiak lau baldintzatzailetan taldekatu ditzakegu: portaerazkoak, ezagutzazkoak, pentsamenduzkoak eta biorritmikoak. Biorritmikoak hurrengoekin lotutak daude; jateko jokabidea, esfinterrenak eta lokartzeko eta lo egitekoak.

1.8. Adimen urritasun arina

Eskolan, egoera, ahalmen eta berezitasun ezberdinak dituzten ikasleekin lan egingo dugu. Pujolásek (2004) dioenez, aniztasuna ez da zailtasun bat bezala ikusi behar, baizik eta naturala eta aberasgarria den zerbait bezala. Adimen urritasunarekin, López-Iborrek dioenez (2002), sailkapenak egin daitezke: sakona, larria, moderatua eta arina. Nire ikerketa lanaren alde praktikoa, adimen urritasun arina duen haur batentzako curriculum egokitzapen batean hobekuntzak prestatzea izango da. Horrexegatik ezinbestekoa ikusten dut ikasle hauen ezaugarriak atal honetan azaltzea.

Trébolen (2010) esanetan ikasleek funtzionamendu intelektualean (informazioaren ulermena, arrazonamendua, problemen ebazpena, planifikazioa eta ikaskuntzaren azkartasuna) eta jokaeran (bizitzan ematen diren aldaketak eta ingurua) urritasun

esanguratsuak dituzte. Horren ondorioz, ezagutzaren lorpenean eta harreman sozialetan eragina du. Adimen-atzerapena, haurrak 18 urte bete baino lehen ematen da.

“Adimen-atzerapena gizartearen batez besteko trebetasun intelektualen mailarekin alderatzen da. Maila hori populazioarena baino baxuagoa denean, adimen-atzerapena dagoela esan ohi da. Hezkuntza sistemaren arabera, bi kurtsoko atzerapena adimen-atzerapenaren sintomatzat har daiteke” (Sanz de Acedo, 1977).

Adimen atzerapen mota ezberdinak aurkitzen ditugu koefiziente intelektualaren arabera. Hiru multzotan sailkatzen da:

- Hezteko modukoak: 50-70
- Trebatzeko modukoak: 30-50
- Beti babesa behar dutenak: 30 baino gutxiago.

Esan beharra dago haur bakoitzak ezaugarri kognitibo, afektibo, linguistiko eta psikomotoreak ezberdinak izango dituela, urritasun mailak eta estimulazioak eragina duelako eta ondorioz, orokortzea ezinezkoa izango da. Hala ere, haur hauetan eman daitezkeen ezaugarri batzuk aipatuko ditut:

- Aspektu kognitiboa:
 - Oinarrizko prozesu kognitibo, ikaskuntza eta memorian efikazia baxua.
 - Zailtasunak lengoai abstraktuan eta ikaskuntzen orokortzean.
 - Ahalmen metakognitiboetan ahulezia.
- Autonomia eta harreman sozialak:
 - Autonomia pertsonala (baldintzatua) lortzen dute.
 - Beren ahalmenei egokitutako aktibitateetan/egoeretan inplikatzeko dira.
 - Harreman sozialak ez dira oso zabalak.
 - Egituratuak ez diren egoeretan jarrera impulsiboak dituzte.
- Lengoia eta komunikazioa:
 - Lengoaiaren garapen orokorrean atzerapena.
 - Abilezia linguistikoaren garapenean moteltasuna.
 - Zailtasunak ulermen eta adierazmen lengoian.
 - Zailtasunak irakurketa-idazketa prozesuan

Nolanahi ere, ume hauek guztiek ezaugarri komun batzuk dituzte (Trébol, 2010):

- Portaera oldarkorra eta zorrotza arazoak konpondu behar direnean.
- Ezegonkortasuna eta aldaketak harreman sozio-afektiboetan.
- Antsietatea eta euren buruari buruzko irudi eskasa.
- Egozentrismoak.

Esku-hartzean bi aspektu kontutan hartuko ditugu: Alde batetik, laguntza eman eta curriculumean egokitzapenak egin. Bestetik, ume direnetik eskola arruntean integratuko dira.

ESKU-HARTZEA:

ESKOLAN

Eskolan izango ditugun ikasleak adimen urritasun arina dutenak izango dira. Beste motatako adimen urritasuna duten ikasleak aldiz, eskola berezietara joango dira. Esku-hartzea, eskolan eta familian, oinarrizko gaitasunen garapena bermatzeko bideratuko da. Garapena modu egokian emateko oso garrantzitsua izango da eskola eta familiaren artean elkarlana egotea. Horretaz aparte, detekzioa aspektu garrantzitsua izango da. Turiel (1984) en ustez detekzioa goiztiarra bada, esku-hartzea ere goiztiarra izango da eta ondorioz, emaitza hobek lortzeko aukera izango dugu.

Kasu honetan, ikaslea gelan egongo da gainontzeko ikaskideekin, bere integrazioa eta harreman sozialak garatzea ezinbestekoa ikusten baitugu. Gela arruntean egongo da baino argi dago curriculumean hainbat egokitzapen egingo direla. Edukietan aldaketak egingo dira eta jarrera eta ikaskuntza prozesuei garrantzi handia emango diogu. Beraz, nahiz eta bere curriculumak garatzeko moldaketak egin, harreman sozialak eta autonomia garatzeko ariketak edo aktibitateak gainontzeko ikaskideekin burutuko ditu.

Ikasleak dituen zailtasunak eta egoera berezia aztertuz, argi dago klasetik kanpo lan handia egingo dugula. Horretarako eskolako espezialisten esku-hartzea ezinbestekoa izango da. Ezin dugu ahaztu bere garapena mantsoagoa dela eta bere ikaskideen erritmoa jarraitzeko zailtasun handiak dituela. Ondorioz, atentzio pertsonalizatua emango diogu.

Jarduerak prestatzeko eta aurrera eramateko kontutan hartuko dugu adin hauetan ezinbestekoa dela honako hauek garatzea:

- Autonomia.
- Harremanak eta integrazioa.
- Irakurketa-idazketa prozesua.
- Matematikako oinarrizko kontzeptuak (aritmekan zentratuz).

FAMILIAN

Horrelako kasu batean eskolan laguntza ematea garrantzi handia dauka, baina ezinbestekoa da eskolako garapen planari jarraipena ematea etxean. Horrela esku-hartzea eraginkorragoa izatea lortuko dugu. Eskola eta familiaren artean informazio trukaketa egon behar da. Eskola eta familiaren artean komunikazioa emateko, bilerak eta telefonozko elkarrizketak izan behar dira. Horretaz aparte, ondo legoke komunikazio edo informazio trukaketa hauetan lortutako datuak koaderno edo fitxa batzuetan jasotzea. Data eta egoeraren azalpen txiki bat (hobekuntzak, aldaketak, hartutako erabakiak, iritziak, etab.) idaztea oso garrantzitsua da.

1.9. Evaluación

Aparece planteada en la Ley Orgánica 2/2006, 3 de mayo, de Educación desde varias consideraciones. Ligada al proceso de aprendizaje del alumno. Por una parte como un proceso de recogida de datos sobre el proceso de enseñanza y aprendizaje. Por otra, como un instrumento para la rendición de cuentas.

CONCEPTO, PRINCIPIOS Y TIPOS

Según Escamilla y Llanos puede ser definida como el proceso caracterizado por los principios de continuidad, sistematicidad, flexibilidad y participación de todos los sectores implicados en él. Se orienta a valorar la evolución de los procesos de desarrollo de los alumnos y a tomar, en consecuencia, las decisiones necesarias para perfeccionar el diseño y el desarrollo de la programación en su conjunto y también de sus unidades. El propósito que anima todo este quehacer es mejorar la calidad del servicio educativo que prestamos los profesores y nuestro propio desarrollo personal y profesional. (Escamilla Y Llanos, 1995, pp 22-33)

En la definición quedan patentes los principios básicos de la evaluación: continuidad, sistematicidad y flexibilidad.

Podemos encontrar diferentes tipos de evaluación:

- Según su finalidad: diagnóstica (para conocer el punto de partida), formativa (pretende regular, orientar y corregir el proceso educativo) y sumativa (pretende determinar los resultados obtenidos).
- Según el momento de su aplicación: inicial (recogida de información sobre la situación de partida), procesual (valoración del funcionamiento, de la marcha del objeto a evaluar a lo largo de un período previamente fijado) y final (recogida y valoración de datos al finalizar el período previsto para lograr unos aprendizajes o unos objetivos).
- Según su extensión: global (se orienta a abarcar el conjunto) y parcial (pretende el estudio de determinados componentes o dimensiones de la totalidad).
- Según los distintos agentes evaluadores: interna (se lleva a cabo por los participantes en el proceso que se evalúa y presenta diferentes alternativas como son la autoevaluación, heteroevaluación y coevaluación) y externa (los agentes evaluadores no han participado en el proceso).

LA EVALUACIÓN DEL PROCESO DE APRENDIZAJE DEL ALUMNADO EN PRIMARIA

Disposiciones legales:

La evaluación es abordada en la Ley 2/2006, de 3 de mayo Orgánica de educación a lo largo de su articulado, en el Preámbulo y en el título preliminar se identifica como uno de los principios del sistema educativo, y se muestra como uno de los elementos del currículo.

En el Título 1, en relación a la Educación Primaria, se establece que la evaluación es continua y global, y que al terminar el segundo ciclo de primaria se llevará a cabo una evaluación de diagnóstico.

En esta Ley Orgánica se presenta a la evaluación como función del docente y se dedica un espacio muy significativo a la evaluación del sistema educativo.

¿QUÉ EVALUAR?

En el Currículo Oficial los referentes de la evaluación están constituidos por los objetivos educativos, competencias básicas y por los criterios de evaluación.

¿CUÁNDO EVALUAR?

La evaluación debe ser entendida como un proceso continuo que se desarrolla en tres momentos: evaluación inicial, evaluación procesual y evaluación final.

¿CÓMO EVALUAR?

A la hora de evaluar me parece importante destacar la siguiente cita. Nos da información acerca de lo que debemos tener en cuenta. “La objetividad de la evaluación depende básicamente de dos factores, por lo demás estrechamente relacionados: el grado de claridad con que aparecen definidos los criterios e indicadores cuyo contraste permite formular el juicio valorativo; y la precisión y fiabilidad de los procedimientos e instrumentos utilizados para determinar la presencia o ausencia – o la modalidad y grado de presencia – de los indicadores en las producciones de los alumnos (Coll, Martín y Onrubia, 2002, pp 551)

¿QUIÉN EVALUA?

El seguimiento de los aprendizajes de los alumnos/as a través de los criterios determinados y su concreción en las experiencias de aprendizaje lo realizará el profesor. A este tipo de evaluación la llamamos heteroevaluación.

Aún así debemos estimular al alumno/a para que vaya formulando opiniones sobre su propio trabajo (qué les aporta, dificultades, interés, esfuerzo, etc.). Así será posible avanzar hacia la autoevaluación. Aquí se resumen diversas ventajas de la autoevaluación:

- Permite la construcción de aprendizajes significativos por parte del alumno, al hacerle reflexionar sobre su propio aprendizaje.
- Puede modificar positivamente el concepto que de la escuela y del aprendizaje tiene el alumno/a.
- Aumenta la motivación, se siente responsable de su aprendizaje.
- Aumenta la autonomía y responsabilidad del alumno.

- Permite la formación de un autoconcepto ajustado.
- Facilita una mejor relación profesor/a-alumno/a.
- El profesor/a tiene una fuente más de información para emitir su propia valoración.
- Facilita la adopción de adaptaciones curriculares individuales (de apoyo, refuerzo o ampliación) deseadas por el propio alumno/a, lo que las torna más eficaces.

A medida que los alumnos/as se van familiarizando con la autoevaluación podemos solicitar una implicación progresiva, por ejemplo, en la elaboración de: actividades de evaluación, listado de criterios de corrección, pautas de análisis y de valoración de determinados aspectos de la actividad, indicaciones y ejemplos para conceder una calificación, etc. un alumno muy implicado en las actividades de corrección y calificación puede ir formándose sobre cómo aprende y cómo puede orientar mejor su aprendizaje.

1.10. Autoebaluaketa

Alderdi hau garatzeko Calatayud (2008) ek idatzitako iritzizko artikulu batean oinarritu naiz. Calatayud, Valentziako Unibertsitateko irakasle bat da. Internetetik eskuratu dut maiatzaren 6 an (<http://www.educaweb.com>).

Gaur egungo gizartean hezkuntza eremuan kalitateaz hitz egiten dugunean ezin dugu ahaztu ikasleek ikaskuntza erritmo ezberdinak dituztela. Hau da, aniztasuna dago eta ikasle guztiei kalitatezko atentzioa eta hezkuntza eskaini behar zaie.

Aniztasunari aurre egiteko estrategia egoki bat honako hau izan daiteke; ikasleek beren ikaskuntza prozesua ebaluatzen ikastea. Auto ebaluaketaren estrategiak, ikasleek beren ikaskuntza prozesuaren inguruan balorazio, kritika eta hausnarketa bat egiteko balio du (Calatayud, 2002; 1999). Prozesu bakarra eta errepika ezina izango da; behar, interes, eta motibazio ezberdinen araberakoa dena.

Jarraian, autoebaluaketa egitearen onurak edo aspektu positiboak laburtzen dira:

- Ikaslea irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan ematen diren aurrera pausotaz jabetzeko eta kontzientzia hartzeko instrumentua da.

- Ikaslea bere aktibitateengan ardura hartzeko lagungarria da.
- Oinarrizko faktorea da motibazio eta ikaskuntza errefortzuan.
- Estrategia honen bidez irakasleak, ikasleen ikuspegia edo pentsatzeko modua zein den ikus dezake eduki, metodologia eta ikaskuntzaren inguruan.
- Aniztasunari atentziora emateko beharrezkoa da ebaluazio instrumentu ezberdinak erabiltzea. Horrela, ikasle bakoitzaren gaitasunen progresioa hobe ikus dezakegu. Balorazio prozesu horretan auto ebaluazioa beste estrategia bat izan daiteke.
- Jarraitutako prozesuan eta auto ezagutzan sakontzeko lagungarria da.
- Estrategia honen bidez ikaslearen autonomia mailan hobekuntzak eman daitezke.

Auto ebaluazioa ikasleen interes, behar eta ikaskuntza erritmo ezberdinei aurre egiteko erabili behar den estrategia da.

Hona hemen auto ebaluazioa gauzatzeko erabili daitezkeen teknika batzuk:

- Auto ebaluazio koadernoak: Aktibitate honetan ikasleak hainbat aspektu kontrolatzen ditu. Esfortzua eta lortutako lanaren balorazioa (Zer nekien? Nola ikasi dut? Zer dakit orain?) egingo du. Ez dira bakarrik eduki kontzeptualak aztertuko, prozesuak eta jarrerak ere kontutan hartuko dira. Taula baten bidez antolatu daitezke informazioa.

1 Taula. Autoebaluazioa

| Zer nekien? | Nola ikasi dut? | Zer dakit orain? |
|-------------|-----------------|------------------|
| | | |

Balorazioak:

Hobekuntza proposamenak:

- Asteko planaren orria: Aktibitate honetan ikaslearen ardura eta motibazio maila handitzea bilatzen da. Ikasleak badaki aste bat duela adostutako aktibitateak eta lanak egiteko.
- Irakasleak prestatutako auto hausnarketarako erremintak: Irakasleak diseinatzen dituen aktibitateak dira. Hauen helburua, ikasleak ikaskuntzak nola

lortzen dituen ebaluatzea eta ulertzea da. Horretarako galdetegiak, estimazio eskalak, protokoloak, etab prestatzen dira.

- Ikaslearen egunerokoa: Ikasleak bere sentipenak, hobekuntzak, ikaskuntzak eta zailtasunak idatziko ditu. Oso aproposa da ikasleak bere ikaskuntza erritmoaren inguruan hausnarketak egiteko.
- Lanen bilduma: Ikasleak epe zehatz batean egindako aktibitate eta lanak bilduko ditu karpeta batean. Lanen aukeraketa bat egingo da. Ikasleak, hobekuntza eman den lanak aukeratuko ditu. Hau da, autoestima eta konfiantza maila igotzea lortu duten aktibitateak bilduko dira karpeta honetan.

Ebaluatzeko modu honen bidez irakasleak ikaslearen pentsaera eta bere arrazonomendu prozesua ezagutu dezake. Ez du bakarrik produktuetatik informazioa jasotzen, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuak ere kontutan hartzen ditu.

2. GARAPENA: ALDE PRAKTIKOA.

2.1. Curriculum egokitzapenaren azterketa

Unibertsitatean, Hezkuntza Bereziarekin erlazionatutako ikasgaietan (Hezkuntza Bereziaren oinarri psikologikoak eta Hezkuntza Berezia), curriculum egokitzapen indibidualaren inguruan informazioa jaso eta honekin lan egin nuen. Egokitzapena egiteko jarraitu beharreko prozesua zein den ikusi ondoren, curriculum egokitzapen indibidual ezberdinen ereduak aztertu genituen.

Magisteritzako Diplomatura lortu ondoren lanean hasi nintzen eta nire lehenengo lan esperientzian curriculum egokitzapen indibiduala zuen ikasle batekin lan egin nuen. Ikasle hau etorkina zen eta hemengo hezkuntza sisteman berandu sartu zenez, zailtasun handiak zituen hizkuntzarekin eta ondorioz edukiekin. Hezkuntza Laguntza Unitatean sartuta egon nintzen eta bere laguntza irakaslea izan nintzen. Horren ondorioz curriculum egokitzapen indibidualaren jarraipena egin nuen bere tutorearekin batera.

Aurten egin dudana formazioan, Curso de Adaptación al Grado, “Atención a la diversidad en Educación Primaria” ikasgaiaren ere gai honen inguruan informazio ezberdina jaso dugu.

Esperientzia guzti hauek kontutan hartu ditut eta ondorio batera ailegatu naiz, nire lana gidatu duen konklusiora hain zuzen ere.

Ikusi dudanez, curriculum egokitzapen indibiduala prestatzeko eta gauzatzeko modu edo eredu ezberdinak daude. Guztiek ezaugarri amankomunak dituzte; ikaslearen datuak, parte hartzen duten irakasleak, ikastetxearen datuak, ezaugarri psikopedagogikoak, arloetan egiten diren aldaketak, etab.

Lan honetan curriculum egokitzapen indibidual baten azterketa egin dut. Horretarako, momentu honetan lanean nagoen eskolan erabiltzen den curriculum egokitzapen indibidualaren eredu hartu dut oinarri gisa. Nire lehenengo lana material berri hau irakurtzea eta aztertzea izan da (4. Gehigarria: Sarriguren IP ko CEIa).

Curriculum egokitzapen indibiduala prestatzeko eta aurrera eramateko honako aspektu hauek aipatzen eta garatzen dira:

- Ikaslearen datu pertsonalak
- Curriculum egokitzapen indibiduala egiten parte hartu duten irakasleak
- Ikastetxearen datuak
- Ebaluaketa psikopedagogikoa
- Era nabarian aldatzen diren arloak
- Ikaslearen egoera curriculum arloen arabera
- Ikaslearen curriculum egokitua
- Hezkuntza erantzunaren antolaketa
- Curriculum egokitzapenaren jarraipena

Baina jaso dudan formakuntzan eta praktikan ikusi ditudan eruedetan bi hutsune ikusten ditut. Alde batetik, curriculum egokitzapen indibiduala prestatzearen eta garatzearen prozesu konplexu honetan ikaslearen iritzia eta parte-hartzea alde batera geratzen dela. Hau da, eskolako irakasle ezberdinek (tutorea, orientatzailea, laguntzako irakaslea) batez ere eta familiek parte hartzen dutela, eta ikaslea bigarren plano batean geratzen dela.

Orokorrean hezkuntzan eta bereziki curriculum egokitzapena egiteko orduan kontutan hartzen diren teoria psikologikoen garrantzi handia ematen diote haurraren paperari. Ondorioz, ikasleari bere ikaskuntza prozesuan paper aktiboago bat ematea

ezinbestekoa ikusten dut. Bereziki ikaslearen auto-ebaluaketaren prozesua oso garrantzitsua dela uste dut.

Bestetik, curriculum egokitzapen indibidualetan garrantzi handiena ikaslearen zailtasunei eta aspektu negatiboari ematen zaiela. Ikaslearen aurre ezagutzak kontutan hartzen dira, baina informazioa beti edukien lorpen mailara bideratzen da. Honetaz aparte badaude ikaskuntza prozesuan oso garrantzitsuak diren beste aspektu batzuk; kompetentzien lorpena (ikasten ikastea, komunikatzen ikastea, elkarrekin bizitzen ikastea, norbera izaten ikastea eta egiten/ekiten ikastea) eta ikaslearen interesak, motibazioak, bertuteak, lasaitzen laguntzen dioten gauzak/aktibitateak etab.

Nire proposamena, garrantzi gutxiago ematen zaien aspektuen azterketa egitea eta informazioa jasotzeko baliabide bat eskaintzea da. Informazioa jasotzeko bere inguru hurbileko pertsona guztien (irakasleak, familia eta lagunak) iritzia eta bere iritzia propioa kontutan hartuko da.

2.2. Testuinguraketa

2.2.1. Eskolaren ezaugarriak

Eskola publiko honen ezaugarri garrantzitsuenetariko bat aniztasuna da. Herri honetan dagoen biztanleriaren ezaugarriak kontutan hartzen baditugu (hizkuntza, maila sozio-ekonomiko eta kultura desberdinak) argi geratzen da eskolan egoera berezia ematen dela. Horrexegatik Aniztasunaren Atentziorako Planak garrantzi handia izango du.

Aniztasun kulturala: ikasleak leku ezberdinetatik etorri dira eta beraz, sustraiak eta kultura ere ezberdinak dira. Eskola honetan kultura guztiak ezagutu, errespetatu eta baloratzen dira, baina abiapuntua gure herriaren kultura da.

Aniztasun linguistikoa: ikasleek ama-hizkuntza desberdinak dituzte eta eskolan hiru hizkuntza lantzen dira; euskara, gaztelania eta ingelesa. Eskolara datozen ikasle askok ez dituzte hizkuntza hauek menperatzen eta ondorioz, hezkuntza proposamen eta erantzun ezberdinekin lan egitera behartuak gaude. Ondorioz, eskolako Aniztasunaren Atentziorako Planean ezaugarri berezi hau kontutan hartzen da.

Aniztasun soziala: Maila sozio-ekonomiko ezberdina duten familiak aurkitzen ditugu herri honetan. Alde batetik maila ertaineko familiak ditugu eta bestetik, maila baxu eta oso baxuko familiak ditugu.

Eskola honetan jarraitzen den metodologia proiektuen bidezko ikaskuntzan oinarritzen da. Ezagutzaren eraikuntza konstruktibismoaren eta funtzionalitatearen ikuspuntutik egiten da. Ikuspuntu pedagogiko hau ez da bakarrik gelako eguneroko aktibitateetan ematen, baizik eta eskolako aktibitate guztietan isladatzen da.

Honetaz aparte, etapa osorako aplikagarriak diren eta izaera orokorra duten printzipio metodologiko hauek ere kontutan hartu dira:

- Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuetan eta arlo ezberdinetan ikuspegi globalizatzailea izatea.
- Ikasleen paper aktiboa eta partehartzailea faktore garrantzitsua da ikasleen ikaskuntza prozesuan. Irakasleak ikasleen jarrera hau bultzatu beharko du.
- Ikaskuntzen funtzionalitatea. Irakasleak ikaskuntzen funtzionalitatea bermatu beharko du, oinarrizko gaitasunen garapenaren bidez. Ikasitakoa praktikan aplikatzeko, beste ikaskuntzak lortzeko eta beste eduki batzuk lortzeko balio izatea.
- Edukiak egituraketa argi batekin aurkeztu behar dira, arlo beraren beste edukien eta beste arlo batzuen edukien arteko erlazioa planteatuz.
- Prozesu kognitiboak, autorregulazioa eta ikaskuntza propioaren balorazioa faboratu behar da. Horregatik, informazioaren bilaketa, planteamendua, ikerketa, aukeraketa, eguneroko bizitzaren egoerak lantzen duten aktibitateak egokiak izango dira.
- Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak, erreminta garrantzitsu eta ezinbestekoak izan behar dira aktibitateetan eta orokorrean irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan. Arlo guztian landu beharko dira eta oso egokiak dira informazioa bilatzeko eta tratatzeko edo lantzeko orduan.
- Ahalmen, interes eta motibazio ezberdinak dituen ikaslego batean aurkituko garenez, dibertsitate honi erantzuna emateko kurrikulo malgua behar da.

2.2.2. Lehen Hezkuntzako ikasleen ezaugarriak

- Alderdi emozionala:

Emozio handien adierazpenak diraute, baina garapenak eragina izango du hauek azalertzeko moduan. Emozioek iraupena eta estabilitatea irabazten dute. Hauek menderatzeko gaitasuna agertzen da. Ondorioz, agresibitate fisikoa gutxituko da eta, ahozko agresibitatea handituko da. Emozioak zabaltzen dira (negarra, lotsa, beldurrak...). Haurra gizarteratzen doa eta bere emozioak talde edo beste pertsonekin lotuagoak egongo dira.

Sentimenduei dagokionez, gurasoekiko independentzia joera gero eta garatuagoa izango da; hala ere haurrak duen maitasun beharra dela eta, independentzi joera ez da guztiz "erreal" izango. Honen adierazgarri izaten da zirkulu intimoetan oraindik izango duen portaera eta jarrera egozentrikoa. Autonomia nahi du, baina helduarengandik atentzioa eskatuko du.

Haurrak adin honetan irakaslearekin duen harremana, gurasoekin duen harremanaren islapena da. Pixkanaka hauekiko atentzioa alden du eta talde (eskolakoak, kalekoak, bizilagunak...) kideekiko interesa gehitzen da.

Haurrak bere anai-arreba eta gainontzeko kideekin izango duen harremana, kooperazio nahiz lehiakortasunezkoa izan daiteke. Hala ere, sortzen diren harreman berriak sendoagoak eta iraunkorragoak dira.

- Alderdi soziala:

Haurra bizitzaren arauetara egokitu behar da. Alderdi honetan eskolak garrantzi handia hartzen du. Momentu honetan posible da haurrak egokitze arazoak izatea. Haurrak besteekin batera gauzak egin behar ditu eta ondorioz, taldean beste bat besterik ez dela ulertu behar du.

Haurrak ikaskideen pentsakera eta sentimendu ezberdinak identifikatzeko eta ulertzeko gaitasuna garatzen du. Honen ondorioz errespetua eta morala hitzak garrantzia hartuko dute.

- Mugimenduaren alderdia:

Gorputzaren garapen handiagoa. Gorputz-eskemaren egituraketa ematen da. Oinarrizko mugimendu-trebetasunak lortzen ditu. Gorputzaren irudi egoki eta autonomia dute.

- Alderdi kognitiboa:
Egozentrismoa gainditzen dute eta abstrakzio-gaitasuna hobetzen da.
- Garapen afektibo eta soziala:
Taldea bere erreferentzi puntu bihurtzen da. Auto kontzeptua eratzerakoan interakzio sozialaren garrantzia agertzen da. Inguruarekiko sentsibiltatea garatzen dute. Autonomia maila hobetzen dute.

2.2.3. Lehen Hezkuntzako helburu orokorrak

Lehen Hezkuntzaren helburua da haur guztiei beren garapena eta ongizatea sendotzeko moduko hezkuntza ematea. Lehen Hezkuntzak, halaber, aukera eman behar die ahozko adierazpen eta ulermenari buruzko eta idazketari eta kalkulari buruzko trebetasunak bereganatzeko eta gizarterako trebetasunak, lanerako eta ikasteko ohitura, zentzu artistiko, sormena eta afektibitatea bereganatzeko. Honako hauek dira Lehen Hezkuntzarako legeak zehazten dituen helburu orokorrak:

- Elkarbizitzaren balioak eta arauak ezagutu eta preziatzea, haien arabera jokatzeko ikasi, herritar gisa jarduteko prestatu eta giza eskubideak eta gizarte demokratiko batek berezko duen aniztasuna errespetatzea.
- Taldeko nahiz bakarkako lanerako ohitura, ikastean ahalegina egitekoa eta erantzunkizunez aritzekoa, eta norberarengan konfiantza, zentzu kritikoa, ekimena, jakin-nahia, interesa eta sormena ikasketa-prozesuan.
- Gatazkei aurrea hartu eta modu baketsuan konpontzeko trebetasunak bereganatzea, horrela familian eta etxe barnean eta berekin harremanak dituzten gizarte taldeekin autonomiaz moldatzeko.
- Kultura desberdinak eta pertsonen arteko desberdintasunak ezagutu, ulertu eta errespetatzea, eta halaber emakume eta gizonen arteko eskubide eta aukeren berdintasuna eta ezgaitasunen bat duten pertsonak ez diskriminatzea.
- Gaztelania modu egokian jakin eta erabiltzea (eta, dagokionean, berdin euskararen kasuan) eta irakurtzeko ohitura bereganatzea.
- Atzerriko hizkuntza batean, gutxienez, oinarrizko komunikazio gaitasuna bereganatzea, mezu errazak adierazi eta ulertzeko eta eguneroko egoeretan moldatzeko aukera emanen diona.

- Oinarrizko matematikako gaitasunak bereganatu eta kalkulu eragiketa oinarrizkoak, geometria-ezagupenak eta estimazioak egitera behartzen duten problemak ebazten hastea, eta horiek guztiak eguneroko bizitzako egoeretan aplikatzeko gauza izatea.
- Norberaren ingurunea, bai natur, bai gizarte eta bai kultur ingurunea, ezagutu eta aintzat hartzea, bai eta haren gaineko ekintzarako eta zainketarako posibilitateak ere.
- Historia unibertsaleko eta Espainiako historiako gertaerarik garrantzitsuenak ezagutzea.
- Nafarroaren geografiaren eta historiaren hastapenak ezagutu eta Nafarroa berezi egiten duten hizkuntzen, kulturen eta ohituren aniztasunaren berri izan.
- Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak ikasketarako erabiltzen hastea, eta jasotzen eta lantzen diren mezuen aurrean jarrera kritikoa hartzea.
- Irudikapen eta adierazpen artistikoak erabili eta ikusmen arloko proposamenak gauzatzen hastea.
- Higienea eta osasuna aintzat hartu, norberaren eta besteen gorputza onartu, desberdintasunak errespetatu eta gorputz hezkuntza eta kirola garapen pertsonal eta sozialean lagungarri gisa erabiltzea.
- Bizidunak, eta bereziki gizakiak hurbilen dituen animaliak eta landareak ezagutu eta aintzat hartu, eta haiek zaintzeko portaerak bereganatzea.
- Nortasunaren arlo guztietan eta besteekiko harremanetan ahalmen afektiboak eta indarkeriaren, edonolako aurreiritzien eta estereotipo sexisten aurkako jarrera garatzea.
- Bide hezkuntza eta zirkulazio istripuen prebentzioan eragina duten begirune-jarrerak bultzatzea.

2.3. Curriculum egokitzapenaren inguruko hausnarketa

Atal praktikoa, curriculum egokitzapen indibidualaren inguruko hausnarketa bat egitea izan da nire helburua. Dokumentuekin lan egiterakoan konturatu naiz ikaslearen inguruan jaso beharreko informazioa zabaldu eta osatu daitekeela.

Ikaslearen inguruko informazioa profesionalen (orientatzaile, irakasle-tutorea, PTa) ikuspegitik jasotzen da. Eskola eremuan gaude eta ondorioz, ezinbestekoa da langile hauen ezagutza eta ikuspuntua. Nik proposatzen dudana zera da, profesional hauen ikuspuntua eta jaso duten informazioa errespetatzea eta mantentzea, baina aldi berean, ikaslearen inguruko informazioa jasotzeko eremua zabaltzea. Hau da, ikaslearen inguru hurbilenetik ere informazioa bilatzea eta jasotzea. Ikaslearen inguru hurbilena familia eta ikaskideak edo lagunak dira. Ikaslearen izaeraren inguruko informazio oso interesgarria eta egokitzapenean aplikagarria lortu dezakegula uste dut. Konduktismoaren teoria psikologikoak, Skinner aitzindari garrantzitsua delarik, pertsonalitateak edo izaerak hezkuntzan duen garrantzia planteatzen du. Beraz, oso interesgarria izango da ikaslearen izaera gehiago ezagutzea. Izaera ondo ezagutzeak, hezkuntza planteamendu on bat bideratzea ahalbidetuko duela uste dut. Interneten oso ezaguna den entziklopedia batean (<http://es.wikipedia.org>) Francesco Tonucci pedagogoaren informazio interesgarria aurkitu dut. Autore honen esanetan, haurren gaitasunak kontutan hartu behar ditugu baina ezinbestekoa da haurren izaera, interesak, motibazioak eta jarrerak ezagutzea. Ezagutza denon artean eraiki behar da eta haurren parte hartzea eta izaera oso garrantzitsuak dira. Tonuccik familia-eskola harremanari garrantzi handia ematen dio baita ere. Bere ustez harreman hau indartu beharko genuke, informazio trukaketa ikaslearen ikaskuntza eta garapen prozesua hobetzeko.

Horretarako, curriculum egokitzapen indibidualari honako galdetegi hauek gehitzea proposatzen dut. Alde batetik familiak eta bestetik ikaskideek betetzeko. Baita irakasleek betetzeko galdetegi bat (5. gehigarria: galdetegiak)

2.4. Aktibitate motak eta ezaugarriak

Ausubelen teoriaren arabera, eskolan egiten diren ikasketak esanahiez beteta egon behar dira. Esanahi logikoaz, psikologikoaz eta motibazioaz beteta. Curriculum egokitzapen indibiduala egiterakoan oso garrantzitsua izango da aktibitateak ondo antolatzea, eta horien aipamena idatziz agertzea, betiere teknika psikologikoekin duten lotura azpimarratuz eta adieraziz. Irakasleak prestatu beharreko jardueren oinarria jarraian proposamen gisa egingo dut: kontutan hartu antolaketa argia,

egituratua, argibideak zehaztuak (urratsak identifikatzeko errazak), baliabide teknologikoak...

Aktibitateak diseinatzea, ekintza edo faktore oso garrantzitsua da irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan. Bete nahi dugun helburuaren arabera aktibitateak modu batekoak edo bestekoak izan daitezke. Hau da, aktibitate mota diseinatzeko orduan faktore ezberdinak kontutan hartu behar dira.

Aktibitateak ikaskuntzako esperientziak aurrera eramateko modu aktibo eta antolatua dira. Aktibitateak era egokian garatzea ezinbestekoa da helburuak lortzeko, edukiak barneratzeko eta gaitasunak lortzeko.

Aktibitateek hainbat eratako ekintzak bilduko dituzte eta akzioak, portaerak, irakasle eta ikasleen arteko harremanak eta ikasleen arteko harremanak arautuko dituzte, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren garapenean. Lehenengo, ikasketa xedeak argi emango zaizkie ikasleei, lortu nahi diren helburuak argi izateko.

Aktibitateetan eduki hauek egongo dira modu esplizitu eta inplizituan: espazioa, baliabideak, parte hartzen duten pertsonak, talde mota....

Aktibitateak egituratzeko orduan irizpide batzuk izan behar ditugu kontuan:

- Ezagunetik ezezagunera.
- Errazetik zailera.
- Zehatzetik abstraktura.
- Partikularretik orokorrera.

Aktibitateak aukeratu eta diseinatzeko irizpide moduan honako hauek adieraziko ditugu:

- Eduki, helburu eta metodologiarekin erlazionatuak egotea.
- Motibatzaileak izatea eta ikasleentzat interesa izatea..
- Era askotakoak izatea.
- Baliabide eta metodo ezberdinak erabiltzea.
- Denboraren eta espazioaren aurreikuspena hauek gauzatzeko.

Aurretik ikusitakoan oinarrituz, curriculum egokitzapen indibidualean egingo diren jarduerak mota ezberdinetakoak izango dira landu eta lortu nahi denaren arabera:

- Sarrerakoak: aurretiko ideiak eta motibazioa asmatzeko balio dute. Ikaskuntzarekiko jarrera positiboa bilatzen dute ikasleetan. Gai ezberdinei hasiera emateko sarrera orokor bat egiten da. Ondoren, ikasleek dituzten aurre-ezagutzak ikusteko hasierako aktibitate batzuk egingo dira. Aurre ezagutzetan oinarritzean datza.
- Garapenekoak: kontzeptuak, prozedurak edo jarrerak ezagutzeko balio dutenak. Aktibitate hauek, aurre-ezagutzak kontutan hartuz egingo dira eta eduki berriak garatzeko eta finkatzeko balio dute. Eduki multzo ezberdinak lantzen dira eta zailtasun maila handitzen doa. Hau da, hasiera batean landuko diren aktibitateak errazena izango dira eta ondorengoak zailtasun maila handiagoa izango dute. Prozedurak lantzen dituzten edukietatik hasiko gara, ondoren, kontzeptu izaera duten edukietara ailegatzeko.
- Errefortzukoak: Landutako ezagutzak lortu ez dituztenean edo zailtasun handiak dituztenean.
- Anpliazioak: Proposatutako garapen jarduerak era egokian burutu dituztenean, ezagutzak eraikitzen jarrai dezaten. Txoko edo tailerrak.
- Ebaluazioak: edozein ekintza ebaluatu daitekeen arren, komenigarria da momentu zehatz batean lortutako ikasketak ebaluatzeko jarduerak aukeratzea. Ikaskuntza esanguratsuak ikaskuntzen funtzionaltasuna bermatzen du prozesu osoan; hau da, ikasleak argi jakingo du zergatik edo zertarako egingo duen jarduera jakin bat eta, horren ondorioz, hobeto jakingo du zer urrats egin behar dituen egoera ebazteko eta nola jokatu behar duen.

Zalantzarik gabe, jarduerak aukeratzean eta proposatzean, ikasleen interes eta motibazioetatik hurbilen dauden egoerak aukeratuko ditugu, eta urrutiko beste batzuekin osatuko ditugu. Beraz, haurrei hainbat egoeratan (haurren eguneroko bizitzaren egoerak) aplikatu ditzaketan ezaguerak eratzen laguntzeaz aparte, ikasi berri dutena beste ikaskuntza batzuk lortzeko erabiltzen ere lagundu behar diegu.

Hau da, lehendik ikasitakoa, hurrengo ikaskuntzak lortzeko balio izatea garrantzitsua da. Horrela, ikasleak, aurreko ikaskuntzen garrantziaz jabetuko dira eta ikaskuntzen funtzionaltasuna ikusiko dute.

Adimen urritasuna duten ikasleekin egiteko prestatuko ditugun jardueretan, alderdi ezberdinak landu behar ditugu curriculum egokitzapen indibidualean:

- Ikasleak bere iritziak azaltzea. Ikasleak ideiak eta iritziak azaltzen trebatu behar da bere zailtasunei aurre egiteko eta bere autonomia maila hobetzeko.
- Gaitasun ezberdinetako ikaskideekin ekintza anitzetan parte hartzea.
- Ikaslea, bere gauzetaz arduratzea. Aspektu hau oso garrantzitsua da da arreta eta autonomia indartzeko.
- Eskolaren inguruan klabeak ulertzea.
- Aukeratzea eta erabakiak hartzea.
- Ingurunean autonomia lortzeko trebetasunak garatzea.
- Ingurunea ezagutu, ulertu eta erabiltzea.

Lehen Hezkuntzan, irakaslearen zeregina aspektu hauetan oinarritu behar da:

Alde batetik ikaslearen integrazioaren lorpenean lan egin behar du. Ikaslea ikaskideekin eta irakasleekin erlazionatu behar da, lagunak izan eta egin behar ditu eta taldeko partaide sentitu behar da.

Bestetik, irakurketa eta idazketa prozesua landu behar du. Ikasleak irakurtzeko eta idazteko gaitasuna lortu behar du eta horretarako ezinbestekoa da irakasleak planteatzen dituen ariketak ondo egituratuak egotea eta zentzudunak izatea. Hau da, metodo egokietan oinarrituak egotea.

Azkenik, matematikako edukiekin lan egin behar du. Adimen urritasuna duten ikasleekin aritmetikan zentratuko da.

Horretaz aparte ikaslea gizarteko partaide sentitu behar da. Gizartean modu egokian mugitzen eta parte hartzen ikasi behar du, gizartean ezarriak dauden arau, ohitura eta kultura ulertuz eta errespetatuz. Horretarako oso interesgarria da ikasleak honako hauek praktikan jartzea: eskolan ikasitakoa etxean praktikan jartzea, familiaren egitura eta rol ezberdinak ezagutzea, etxeko lanetan parte hartzea, ikaslea bere higiene pertsonalaz arduratzea, errutinak ondo betetzea, arriskuak kontrolatzea, ekintza eta aktibitate familiarretan parte hartzea, eta egunero elkarrizketak edo iritzi trukaketak izatea familiako kide ezberdinekin eta lagunekin.

Interneten oso ezaguna den entziklopedia batean (<http://es.wikipedia.org>) Francesco Tonucci pedagogoaren informazio interesgarria aurkitu dut eta adimen urritasun arina duten ikasleekin egiten ditugun aktibitateetan kontutan hartzekoak dira. Tonucciren ustez, ikasleak dakien gauzetan zentratzen bagara (ezin dutena alde batera utziz), haurraren motibazioak gora egingo du eta frustrazioak behera. Aspektu hau etorkizunari begira lagungarria izango da, bere buruan sinisten eta konfiantza duten pertsonak lortuko bait ditugu. Kontutan hartu behar dugu adimen urritasuna duten ikasleek zailtasunak dituztela eta ezintasun eta frustrazio sentimenduak oso arruntak direla.

2.5. Ikasleen autoebaluaketa

Calatayudek 2008. urtean idatzitako artikuluaaren ekarpenetan oinarrituz eta interneten oso ezaguna den entziklopedia batean (<http://es.wikipedia.org>) Francesco Tonucci pedagogoaren inguruan aurkitutako informazio interesgarria (denon artean eraiki behar da ezagutzak, haurrei botere eta askatasun gehiago eman behar zaie eta etxean egin behar dituzten gauzak, bakarrik egiteko modukoak izan behar dira) kontutan hartuz, autoebaluaketa proposamen bat aurkeztuko dut.

Alde batetik, edukien eta sentimenduen inguruko hausnarketa eta autoebaluazioa egiteko taula bat prestatu dut. Taula honetan ikasleak, prozesuan zehar izandako sentimenduak adierazi behar ditu. Horretaz aparte edukien autoebaluaketa egingo du. Hasierako ezagutzak eta ikasitakoa idatzi behar du. Ikastearen prozesuan izandako zailtasunak eta erabilitako estrategiak aipatuko ditu. Guzti honekin ikasleak, bere ikaskuntza prozesuaren inguruan informazio pertsonal interesgarria jasoko du, hurrengo gaietan kontutan hartuko duena (6. gehigarria: Sentimenduak/edukiak taula).

Bestetik, autoebaluaketa egiteko, eguneroko bat jarraitzea proposatzen zaio ikasleari. Egunerokoa taula bat da (7 gehigarria: Ikaslearen egunerokoa). Taula honetan asteko egunak eta idazteko espazioa agertzen da. Irakasleak egunerokoa zer den eta zertarako den azaldu behar dio ikasleari. Behin jakinda, ikasleak denbora tarte bat hartu beharko du eskola-egunaren amaieran edo etxean, gelan gertatutakoa, ikasitakoa eta sentitutakoa idatziz azaltzeko.

3. ESKOLAN DUEN ERAGIN PSIKOLOGIKO, PEDAGOGIKO ETA SOZIALA.

Lan honetan egin dudan ikerketak eskolan eragin psikologiko, pedagogiko eta soziala izatea espero dut. Aukeratu dudan gaia, eskola guztietan hobetzeko alderdi bat dela uste dut eta horrexegatik praktikara eramateko egokia ikusten dut. Ikerketa hau prestatzerakoan, lan egiten dudan eskola hartu dut erreferentziazat. Beraz, nik aukeratutako testuingurua (sozio-ekonomikoa, linguistikoa...) eta erabilitako materialak eskolara egokitzen dira. Ondorioz nire ekarpenek eskolaren funtzionamendua hobetzea izango da nire helburua.

Curriculum Egokitzapen Indibidualaren (CEI) gaia garatzeko aspektu eta teoria psikologiko ezberdinak kontutan hartu ditut. Adimen urritasun arina duten ikasleekin lan egiteko eta jarduera ezberdinak bideratzeko ezinbestekoa ikusten dut autore ezberdinek (Ausubel, Skinner...) egindako ekarpen psikologikoak ezagutzea eta praktikan jartzea. Gure eskolako haurren portaerak eta garapena ulertzeko eta moldatzeko, ezinbestekoa da haur hauen ezaugarri psikologikoak ezagutzea. Lan honetan, ikuspuntu eta irizpide psikologikoen inguruan egin dudan hausnarketak; haurrak, hauen jokatzeko modua eta garapena (akademikoa eta pertsonala) hobeto ulertzeko eta esku hartze planteamendu egokiak prestatzeko balio duela uste dut. Hezkuntzaren ikuspegi psikologiko propioa planteatzen dut.

Era berean, alde pedagogikoan hobekuntzak ekar ditzakeela uste dut. Haurren ezaugarriak eta ikasketa prozesuak aztertu ondoren, aktibitateak planteatzeko ikuspegi egoki bat azaltzen dudala uste dut. Curriculum egokitzapen indibidual batean, adimen urritasun arina duen ikasle batentzat, erabili daitekeen metodologia eta aktibitateen sekuentziarioa eta garapena azaltzen dut, eskolan horrelako kasuetan erabiltzeko balio izango duena.

Sozialki, ikerketa honek ikasle guztien garapena eta ongizatea bermatu nahi du. Hezkuntza behar bereziak dituzten haurrek garapen osoa lortzea bilatzen du, eskolako eta gizarteko eremu ezberdinetan trebetasunez mugitu ahal izateko. Irakaskuntza ikaskuntza prozesuan erritmo motelago bat izateak, geroagokoa eta harreman sozialak ez baldintzatzea.

ONDORIOAK

Ikerketa honetan “Adimen urritasun arinaren curriculum egokitzapen indibidual (CEI) baten aplikazioan erabiltzeko teknika psikologikoak” gaia garatu dut. Hasiera batean planteatu nituen galderen erantzuna bilatu dut. Lanaren amaieran, irakurritako informazio guztia eta erabilitako material guztia kontutan hartuz balorazio bat egin dezaket eta jarraian nire konklusioak azalduko ditut.

Hasteko, gaur egungo egoera, pentsaera eta lan egiteko modua ulertzeko uste dut beharrezkoa dela curriculum egokitzapen indibidual bat egin edo jarraitu behar duen irakasle orok Hezkuntza Bereziaren prozesu historikoaren inguruko informazioa ezagutzea. Historian zehar behar bereziak izan dituzten haurrek ez dute erraza izan hezkuntza sisteman sartzeko eta irakaskuntza-ikaskuntza prozesu egoki bat izateko. Hala ere, azken urteotako legeek aspektu honi garrantzi handia eman diote eta ondorioz, gaur egun, ikasle oroko du kalitatezko hezkuntza jasotzeko eskubidea. Behar bereziko haurrek eskola arruntetan eta baliabide berriekin (materialak eta pertsonalak) lan egiten dute. Horretaz aparte, eskola berezietan hezkuntza jasotzeko aukera dago. Nafarroan zehazki, CREENA zentroa nabarmentzen da, hezkuntza berezirako baliabide zentro garrantzitsua.

Ezinbestekoa izango da irakaslearentzat curriculum egokitzapenen inguruko informazioa ezagutzea: zer den, zein ezaugarri dituen, motak, nork egiten duen, nola egiten den... Ikusi dudanez, curriculum egokitzapen indibidual bat egin baino lehen prozesu konplexu eta luze bat jarraitu behar da. Hau da, baldintza eta prozesu batzuk bete behar dira eta erabakiak hartu behar dira. Horretaz aparte, curriculum egokitzapen mota ezberdinak aurkitzen ditugu eta beharrezkoa da bakoitzaren balioa eta ezaugarriak ezagutzea.

Lana egiterakoan ikusi dudanez, oso garrantzitsua da hezkuntzaren edozein alorrean teoria eta irizpide psikologikoak kontutan hartzea. Argi izan behar dugu pertsonekin lan egiten dugula eta ondorioz, autore ezberdinek egindako ekarpenak ezagutu behar ditugu gure ekintza, jarduera eta jarrerak modu egokian bideratzeko. Lehen hezkuntzako ikasleen ezaugarri psikologikoak ezagutu behar ditugu eman daitezkeen

zailtasun, portaerak eta gertaerak ulertzeko. Ikaslearen pertsonalitatea edo izaera, interesa eta motibazioak eragin zuzena dute ikasleak eman ditzakeen erantzunekin, errendimendu akademikoarekin eta portaerekin. Beraz, edozein aktibitate planteatzerakoan presente izango ditugu aipatutako irizpide psikologiko guztiak. Aspektu psikologikoek garrantzi handiagoa hartzen dute Hezkuntza Bereziaren curriculum egokitzapenaren eremuan. Ezinbestekoa da ezagutzea eta ulertzea gure ikasleek izan dezaketena pentsamendua eta adin hauetan eman daitezkeen nahaste psikoebolutiboak. Argi izan behar dugu behar bereziak direla eta aspektu batzuetan gabeziak edo zailtasun handiak izan ditzaketela, eta horren ondorioz espero ez dugun jarrera izan dezaketela.

Kasu honetan, adimen urritasun arina duten ikasleentzako curriculum egokitzapen indibidualerako egindako planteamendua proposatzen da. Beraz, argi dago ikasle hauen ezaugarriak ezagutu behar ditugula. Horrelako ikasleek zailtasunak dituzte edukinak barneratzeko, informazioa tratatzeko arazoak dituztelako eta lana antolatzeko arazoak dituztelako. Denbora antolatzeko zailtasunak dituzte eta ariketak egiteko efektibitatea ez da altua. Honetaz aparte, esan beharra dago adimen urritasuna duten ikasleek ezaugarri psikologiko batzuk dituztela. Orokorrean motibatzeke zailtasuna dute eta frustrazio eta haserre sentimenduak azaleratzen dituzte. Beraz, beraien motibazioak eta interesak kontutan izatea komenigarria da. Mezu positiboak ematea eta dakiten ezagutzetatik abiatzea oso egokia izango da. Autonomia maila baxua dute eta horrexegatik komenigarria da aspektu hau lantzea eta autoebaluaketa indartzea. Psikologo eta pedagogo famatu askok ildo hontatik bideratzen dute lana, ikasleari parte hartzeko aukera eta ardura gehiago emanez.

ERREFERENTZIAK

Baena, J. J. (2008). Antecedentes de la Educación Especial. *Revista digital: Innovación y experiencias educativas*, 13.

Bautista, R. (1993): *Necesidades Educativas Especiales*, Ediciones Aljibe.

Calatayud Salom, A (2002): "La cultura autoevaluativa, piedra filosofal de la calidad en educación". *Revista: Educadores*. Núm 204. Págs. 357-375.

Castanedo, C. (1997): *Bases Psicopedagógicas de la Educación Especial: Evaluación e Intervención*, Editorial CSS, Madrid

Coll, C., Martín, E. y Onrubia, J (2002): "La evaluación del aprendizaje escolar: dimensiones psicológicas, pedagógicas y sociales" ", en C. Coll, A. Marchesi y J. Palacios, *Desarrollo Psicológico y Educación I y II*. Madrid: Alianza Psicología.

Escamilla, A. y Llanos, E. (1995): *La evaluación del proceso de aprendizaje y de enseñanza en el aula*. Madrid, Luis Vives

López-Ibor Aliño, J. J. y Valdés Miyar, M. (2002): *DSM-IV-TR. Manual diagnóstico y estadístico de los trastornos mentales*, Masson, Barcelona.

Macías, E. (2001). Personas y diversidad. Implicaciones educativas en la sociedad del Conocimiento. En *Revista Complutense de Educación*, 12 (2), 595-621

Medina Balmaseda, M. T. (2006). *Análisis de las actitudes del profesorado ante la educación de los niños superdotados: implicaciones en la formación del profesorado*. Editorial Universidad Complutense de Madrid. Tesis doctoral.

Marchesi, A. Martín, E. (1990). Del lenguaje del trastorno a las necesidades educativas especiales. En A. Marchesi, C. Coll y J. Palacios (Comps.), *Desarrollo psicológico y educación, III. Necesidades educativas especiales y aprendizaje escolar*. Madrid: Alianza. 15-33)

Pujolás Maset, P. (2004). *Aprender juntos alumnos diferentes. Los equipos de aprendizaje cooperativo en el aula*. Barcelona: Eumo-Octaedro

Salazar González, J. (2010). Modelos teóricos de formación del profesorado. Revisión crítica. En L. Pumares y M. L. Hernández Rincón (Coord.), *La formación del profesorado para la atención a la diversidad*. Madrid: CEP. 27-50

Sanz de Acedo Lizarraga, M^a Luisa (1997): *Psicología: Mente y conducta*, DDB, Bilbo

Trébol Unzue, F (2010). *Hezkuntza Bereziaren oinarri psikologikoak*. Bilbo: Cuatroas

Turiel, E (1984): *El desarrollo del conocimiento social. Moralidad y convención*, Morata, Madrid.

LEGEDIA:

BOE: Ley orgánica 2/2006, de 3 de mayo

Real Decreto 1513/2006, de 7 de diciembre

Decreto Foral 24/2007, 19 de marzo

Orden Foral 93/2008.

Sarriguren IP ko dokumentuak: fluxu-diagrama eta curriculum egokitzapen individualaren eredua.

GEHIGARRIAK

1 GEHIGARRIA: OINARRIZKO GAITASUNEN LABURPEN-TAULA

| | |
|---|--|
| 1) Hizkuntza bidez komunikatzeko gaitasuna | Hizkuntza ahoz eta idatziz komunikatzeko, errealitatea irudikatu, interpretatu eta ulertzeko, ezagupenak osatu eta komunikatzeko eta pentsamendua, emozioak eta portaera antolatu eta auto-erregulatzeko tresna gisara erabiltzeari dagokio. |
| 2) Hizkuntza bidez komunikatzeko gaitasuna | Zenbakiak erabili eta erlazionatzeari, haien arteko oinarrizko eragiketak eta arrazoibide nahiz adierazpen matematikoaren motak erabiltzeari, bai informazio mota desberdinak sortu eta interpretatzeko, bai errealitatearen alderdi kuantitatiboei eta espazialei buruzko ezagutza handitu eta eguneroko bizitzako eta lan munduko arazoak konpontzeko. |
| 3) Mundu fisikoa ezagutzeko eta harekin elkarreraginean aritzeko gaitasuna. | Mundu fisikoarekin, bai haren alderdi naturalekin, bai giza jardunak sortutako horiekin, elkar eragiteko trebetasuna da, gertaerak ulertu, ondorioak aurreikusi eta nork bere bizitzaren, beste pertsonen eta gainerako izaki bizidunen bizi baldintzak hobetu eta zaintzeko bidea ematen diguna. Labur esanda, bizitzaren eta jakintzaren arlo desberdinetan autonomiaz eta ekimen pertsonalez jardun eta mundua interpretatzeko trebetasunak hartzen ditu barne. |
| 4) Informazioaren tratamendua eta gaitasun digitala. | Informazioa bilatu, lortu, prozesatu, komunikatu eta jakintza bihurtzeko trebetasunean datza. Trebetasun batzuk hartzen ditu barne, informazioa bilatzetik hasi eta hura tratatu ondoren euskarri desberdinen bitartez transmititzearekin bukatuta, barne hartuz informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabilera, informatu, ikasi eta komunikatzeko funtsezko elementua da. |

| | |
|---|--|
| | |
| 5) Gaitasun soziala eta herritartasuna. | Bizi garen gizartearen errealitatea ulertzen dugu, eta gai gara lankidetzan aritu, elkarrekin bizi, gizarte anitz batean herritartasun demokratikoaren arabera jokatu eta gizartea hobetzeko konpromisoa hartzeko. Erabakiak hartu, egoera jakin batzuetan nola jokatu eta hautatu eta hartutako aukeren eta erabakien erantzukizuna hartzea ahalbidetzen diguten ezagutzak eta trebetasun konplexuak biltzen ditu. |
| 6) Arte eta kultur gaitasuna. | Bidea ematen du kultur eta arte agerpenak ezagutu, ulertu, estimatu eta baloratzeko, hala nola aberastu eta gozatzeko iturri gisa erabili eta herrien ondarearen osagaitzat hartzeko. |
| 7) Ikasten ikasteko gaitasuna | Ikasten ikasteko beharrezkoa da ikasten hasteko trebetasunak izatea, eta baita nork bere helburuen eta beharren arabera gero eta modu autonomoagoan eta eraginkorragoan ikasten jarraitzekoak ere. |
| 8) Autonomia eta ekimen pertsonala. | Elkarri lotutako balio eta jarrera pertsonal batzuen kontzientzia-hartze eta erabilera (erantzukizuna, jarraitutasuna, sormena, autokritika, emozioen kontrola, arazoei aurre egiteko kontrola). Nork bere irizpideari jarraituz hautatu, proiektuak sortu eta aukera eta plan pertsonalak gauzatzeko behar diren ekintzak aurrera eramateko trebetasuna, azken hori banakako nahiz taldeko proiektuen esparruan eta haien erantzukizuna hartuz, bai esparru pertsonalean eta sozialean, bai lanarenean. |

2 GEHIGARRIA : CREENA- NHBBZ

CREENA, Nafarroako Foru Komunitatean hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleei laguntza emateko zerbitzu berezia da. Euskaraz NHBBZ izena hartzen du, Nafarroako Hezkuntza Bereziko Baliabide Zentroa. Informazioan eta aholkularitzan lan egiten dute, ikasleek beharrak asetzeko helburuarekin baliabideak eta laguntza eskaintzen dutelarik. Ikastetxeak eta talde psikopedagogikoak osatzen eta hobetzen lan egiten dute.

Nafarroako Hezkuntza Bereziko Baliabide Zentroa (NHBBZ) zazpi talde edo modulutzat osatuta dago:

- Entzumen eta lengoiaia modulua.
- Jarrera eta supergaitasun modulua.
- Mugimendu modulua.
- Psikikoen modulua.
- Ikusmen modulua.
- Creena-Tutera.
- Ospitaleko eta etxerako arreta.

Zentro honek funtzio batzuk ditu eta jarraian laburbiltzen ditut:

- Eskolatu baino lehen, gabeziak eta ezintasunak dituzten haurren balorazioa eta orientazioa egitea.
- Eskolatzeko-modalitatea proposatzea.
- Ikasleen identifikazioa eta balorazioa (eskolatuak dauden ikasleak).
- Planak azaltzea eta ezartzea, ikasleei laguntza egokiena emateko eta hauen aurrean jokatzen jakiteko helburuarekin.
- Laguntza psikopedagogikoa eskaintzea.
- Baliabide material bereziak eskaintzea.
- Esku hartzea ikastetxeetan (zuzenean edo zeharka).
- Ikasleen jarraipenean eta ebaluazioetan parte hartzea.
- Supergaitasuna duten ikasleekin jardutea, identifikazioa eginez eta laguntza emanez.

Hauetaz aparte, Hezkuntza Bereziko Baliabide Zentro honek beste funtzio garrantzitsuak betetzen ditu. Ikasleen behar bereziak asetzeko curriculum baliabide berriak sortzen dituzte, eskola arruntetan lan egiten duten irakasleei formakuntza ematen diote, hezkuntza bereziarekin erlazionatutako gaien inguruan ikerkuntzak sustatzen dituzte.


Hiru unitate aurkitu ditzakegu:

1. Informazio unitatea: Unitate honen helburua informazioa ematea da. Familiei eta hezkuntzako partaide ezberdinei gizarte laguntzako baliabideei buruzko informazioa; bekak, laguntzak...
2. Bibliografia eta Dokumentu Funtsako Unitatea: Unitate honek hezkuntza behar bereziak dituzten ikasleekin lan egiteko edo elkar bizitzeko erabili daitezkeen material anitzak antolatzen eta eskaintzen ditu. Dokumentuak, curriculum materialak eta balorazio elementuak.
3. Baliabide materialak eta Teknologia Berrien Unitatea: ikastetxeetan aurkitzen ditugun materialak hobetzeko edo osatzeko unitatea. Behar bereziak dituzten ikasleekin lan egiteko oso garrantzitsuak dira teknologia berrien bidez sortu eta eskuratu ditzakegun materialak.

NHBBZ zentroan profesional mota ezberdinak aurkituko ditugu lanean. Orientatzaileak (psikologo eta pedagogoak), Pedagogia Terapeutikoko irakasleak (PT), gizarte langileak, fisioterapeutak, logopedak eta administrazioko langileak.

NHBBZ zentroa publikoa da eta horren ondorioz, Nafarroako hezkuntza komunitatearen partaide guztiei irekita dago (ikasle eta ikastetxeei, beste edozein modalitatean eskolatutako ikastetxeei, eskolatu ezin diren hurrei).

3 GEHIGARRIA : FLUXU-DIAGRAMA.



4. GEHIGARRIA : SARRIGUREN CEI

CURRICULUM EGOKITZAPEN INDIBIDUALA*ADAPTACION CURRICULAR INDIVIDUAL***IKASLEAREN DATU PERTSONALAK***DATOS PERSONALES DEL ALUMNO/A.*

KASLEA / ALUMNO/A:

JAIOTEGUNA / FECHA DE NACIMIENTO:

ADINA / EDAD:

ESKOLATZEA / ESCOLARIZACIÓN: **Etapa / Etapa:** **Zikloa / Ciclo:** **Maila/Nivel** **Ikasturtea/Curso**.....**CURRICULUM EGOKITZAPEN INDIBIDUALA EGITEN PARTE HARTU DUTEN IRAKASLEAK***PROFESIONALES QUE HAN PARTICIPADO EN SU ELABORACIÓN.*

TUTOREA / TUTOR/A:

ARLOKO IRAKASLEA / PROFESORADO DE ÁREA:

ORIENTATZAILEA / ORIENTADOR/A:

P.T. IRAKASLEA / PROFESOR/A PT.:

ENTZUMEN ETA HIZKUNTZA IRAKASLEA/ PROFESOR/A DE AUDICIÓN Y LENGUAJE:

LAGUNTZA IRAKASLEA / PROFESORADO DE APOYO

BESTELAKO PROFESIONALAK / OTROS/AS PROFESIONALES:

IKASTETXEAREN DATUAK

DATOS DEL CENTRO.

IKASTETXEAREN IZENA / NOMBRE DEL CENTRO:

Denboraldia / Periodo para el que se realiza: Del **(e)tik** al **arte.**

EBALUAKETA PSIOPEDAGOGIKOA

TESTUINGURUAREN AZTERKETA/ANÁLISIS DEL CONTEXTO

FAMILIA INGURUNEAREN EZAUGARRI GARRANTZITSUAK / ASPECTOS RELEVANTES DEL AMBIENTE FAMILIAR

GELA ETA IKASTALDEAREN EZAUGARRI GARRANTZITSUAK / ASPECTOS RELEVANTES DEL AULA Y DEL GRUPO-CLASE

IKASLEAREN GARAPEN MAILAREN EZAUGARRI NABARMENAK / CARACTERÍSTICAS SIGNIFICATIVAS DEL

Alderdi biologiko, garapen intelektuala, motorea, hizkuntza-komunikazio, emozionala eta gizarteratzea/

Características biológicas, desarrollo intelectual, motor, comunicación y lenguaje, emocionales y de integración social

IKASLEAREN IKAS-ESTILOA / *ESTILO DE APRENDIZAJE DEL ALUMNO/A*

ERA NABARIAN ALDATZEN DIREN ARLOAK

ÁREAS QUE SE MODIFICAN SIGNIFICATIVAMENTE.

ZIKLOKO CEI ESANGURATSU ETA GLOBALA / *ACI SIGNIFICATIVA GLOBAL DE CICLO*

Curriculum erreferentzia / *Referencia curricular*

CEI ESANGURATSUA HURRENGO CURRICULUM-ARLO HAUETAN

Curriculum erreferentzia

ACI SIGNIFICATIVA EN LAS SIGUIENTES ÁREAS

Curriculum de referencia

IKASLEAREN EGOERA CURRICULUM ARLOEN ARABERA*SITUACIÓN DEL ALUMNO O ALUMNA EN RELACIÓN A LAS ÁREAS CURRICULARES***Arloa / Área**

| Gaur egun duen gaitasun maila / Nivel actual de competencias | Hezkuntza premia bereziak / Necesidades educativas especiales |
|---|--|
| | |

IKASLEAREN CURRICULUM EGOKITUA

CURRICULO ADAPTADO DEL ALUMNO O ALUMNA

Arloa / Área

| | 1. EBALUAKETA | | | 2. EBALUAKETA | | | 3. EBALUAKETA | | |
|--|-------------------------------|------------------------|----------------------------------|-------------------------------|------------------------|----------------------------------|-------------------------------|------------------------|----------------------------------|
| | 1º EVALUACIÓN | | | 2º EVALUACIÓN | | | 3º EVALUACIÓN | | |
| | Hasita <i>Iniciad</i> o | Garatz <i>Desar</i> | Lortut a <i>Conse</i> g | Hasita <i>Iniciad</i> o | Garatz <i>Desar</i> | Lortut a <i>Conse</i> g | Hasita <i>Iniciad</i> o | Garatz <i>Desar</i> | Lortut a <i>Conse</i> g |
| | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | |

HEZKUNTZA ERANTZUNAREN ANTOLAKETA / ORGANIZACIÓN DE LA RESPUESTA EDUCATIVA

GIZA BALIABIDEAK: arreta mota (bakarka, talde txikia, ikastalde osoa), arloa, tokia (bere gelan ala kanpoan) eta berarekin aritzen diren profesionalak (PT, EH, Tutorea, Arloko irakaslea, zaintzailea...)

RECURSOS PERSONALES: tipo de atención (individual, pequeño grupo o grupo completo), área, lugar (dentro o fuera del aula de referencia) y personal implicado (PT, AL, tutor/a, de área, cuidador/a...)

| CEI LANTZEN DUTEN PROFESIONALAK <i>PROFESIONALES QUE DESARROLLAN EL ACI</i> | ASTEKO SAIO K. <i>Nº SESIONES SEMANALES</i> | BAKARKA, TALDE TXIKIA, EDOTA IKASTALDE OSOAN <i>INDIVIDUAL, PEQUEÑO GRUPO O GRUPO-CLASE</i> | IKASGELA BARRUAN ALA KANPOAN <i>DENTRO O FUERA DEL AULA</i> |
|--|--|--|--|
| PT MAISU/MAISTRA / MAESTRO/A DE PT | | | |
| EH MAISU/MAISTRA / MAESTRO/A DE AL | | | |
| ZAINZAILA / CUIDADOR/A | | | |
| TUTOREA / TUTOR/A | | | |
|ARLOKO MAISU/MAISTRA <i>ESPECIALISTA AREA</i> | | | |
| LAGUNTZA IRAKASLEA <i>/PROFESORADO APOYO</i> | | | |

Arreta mota: B = bakarka; TT = talde txikia; TH = talde handia

Modalidad de atención: I = individual; PG= pequeño grupo; GC= grupo-clase

Profesionalak: T = Tutore; PT = *Pedagogía Terapéutica*; EH = Entzumena eta Hizkuntza; Z = Zaintzailea; F = Fisioterapeuta

Profesionales: T= Tutor del alumno (si es otro tutor, indicarlo); P.T. = profesor de Pedagogía Terapéutica; L = logopeda; C = cuidador/a; F= Fisioterapeuta.

IKASLEAREN ORDUTEGIA / HORARIO DEL ALUMNO/A

| | ASTELEHENA <i>LUNES</i> | ASTEARTEA <i>MARTES</i> | ASTEAZKENA <i>MIÉRCOLES</i> | OSTEGUNA <i>JUEVES</i> | OSTIRALA <i>VIERNES</i> |
|--|----------------------------|----------------------------|--------------------------------|---------------------------|----------------------------|
| | | | | | |
| | | | | | |
| | | | | | |
| | | | | | |
| | | | | | |
| | | | | | |
| | | | | | |
| | | | | | |
| | | | | | |

CURRICULUM-EGOKITZAPENAREN JARRAIPENA
SEGUIMIENTO DE LA ADAPTACIÓN CURRICULAR

| Data / Fecha | Landutako gaiak / Temas tratados | Hartutako erabakiak / Decisiones tomadas |
|--|---|---|
| | | |
| Parte hartu duten profesionalak / Profesionales que han participado | | |

| Data / Fecha | Landutako gaiak / Temas tratados | Hartutako akordioak / Acuerdos tomados |
|--|---|---|
| | | |
| Parte hartu duten profesionalak / Profesionales que han participado | | |

| Data / Fecha | Landutako gaiak / Temas tratados | Hartutako akordioak / Acuerdos tomados |
|--|---|---|
| | | |
| Parte hartu duten profesionalak / Profesionales que han participado | | |

5.GEHIGARRIA: INFORMAZIOA LORTZEKO GALDETEGIA

IKASKIDEAK/LAGUNAK

SENTIMENDUAK:

- Bere sentimenduak (tristura, haserrea...) adierazten ditu?
- Askotan haserretzen da? Zergatik?
- Zergatik jartzen da triste? Kontatzen dizu?
- Zergatik jartzen da pozik? Kontatzen dizu?

EGUNEROKO HARREMANA:

- Zerekin eta zertara gustatzen zaio jolastea? Jolasen arauak ulertzen ditu?
- Norekin jolasten du?
- Zeri buruz hitz egiten duzu berarekin?
- Lagunekin jolastea
- Zertan uste duzu trebea dela?
- Hitz egiterakoan, zein gaietan da aditua?
- Ondo moldatzen da gauzak azaltzeko? Ulertzen duzu berak adierazi nahi duena?

TALDE LANA:

- Parte hartzen du?
- Lan egiteko gogoazaltzen du?
- Zure ustez, taldeka lan egitea gustatzen zaio?
- Berarekin lan egitea gustatzen zaizu?
- Zalantzak argitzen saiatzen da? Galdetzen du?
- Egin behar dena ulertzen duela uste duzu?
- Taldekideak errespetatzen ditu? Beste taldeek errespetatzen dute?

FAMILIA

SENTIMENDUAK:

- Bere sentimenduak (tristura, haserrea...) adierazten ditu?
- Askotan haserretzen da? Zergatik?
- Zergatik jartzen da triste? Kontatzen dizu?
- Zergatik jartzen da pozik? Kontatzen dizu?

EGUNEROKO HARREMANA:

- Zerekin eta zertara gustatzen zaio jolastea? Jolasen arauak ulertzen ditu?
- Norekin jolasten du? Anai-arrebekin?
- Aktibitate fisikoetan ondo moldatzen da?
- Zeri buruz hitz egiten duzu berarekin?
- Lagunekin jolastea gustatzen zaio? Nolako harremana du beraiekin?
- Zertan uste duzu trebea dela?
- Hitz egiterakoan, zein gaietan da aditua?
- Ondo moldatzen da gauzak azaltzeko? Ulertzen duzu berak adierazi nahi duena?
- Eguneroko aktibitateetan (jantzi, bazkaldu, lanak...) nolakoa da bere jarrera?
- Etxean ezarri dituzuen arauak betetzen ditu?

GELA

SENTIMENDUAK:

- Bere sentimenduak (tristura, haserrea...) adierazten ditu?
- Askotan haserretzen da? Zergatik?
- Zergatik jartzen da triste? Kontatzen dizu?
- Zergatik jartzen da pozik? Kontatzen dizu?

TALDE HANDIA:

- Parte hartzen du?
- Bere iritzia azaltzeko gai da? Azaltzen duena ulertzen da?
- Gela osoari emandako aginduak ulertzen ditu? Betetzen ditu?
- Nolakoa da harremana ikaskideekin? Gustatzen zaio besteekin gauzak egitea?
- Nola ikusten dute ikaskideek? Maite dute? Errespetatzen dute?
- Laguntza emateko prest daude? Gustatzen zaio besteen laguntza jasotzea?

BAKARKA:

- Aginduak ulertzen ditu? Betetzen ditu?
- Azalpenak emateko baliabide bereziak (teknologikoak, argazkiak...) erabili behar dituzu?
- Lana bakarka egitea gustatzen zaio? Jarrera baikorra azaltzen du?
- Arreta mantentzea kostatzen zaio?
- Ze motatako lanetan moldatzen da hobe? Zertan da trebea?
- Ze gaiak gustatzen zaizkio? Zerekin motibatzen da?

TALDE LANA:

- Parte hartzen du?
- Lan egiteko gogoaz azaltzen du?
- Zure ustez, taldeka lan egitea gustatzen zaio?
- Berarekin lan egitea gustatzen zaizu?
- Zalantzak argitzen saiatzen da? Galdetzen du?
- Egin behar dena ulertzen duela uste duzu?
- Taldekideak errespetatzen ditu? Beste taldeek errespetatzen dute?

6.GEHIGARRIA: SENTIMENDUAK/EDUKIAK TAULA.

IKASLEA:

DATA:

| EDUKIAK | | | |
|---|--|--|----------------------------|
| Zer nekien gaiaren inguruan? | Nola ikasi dut? Zeren bidez? Norbaiten laguntzarekin? Baliabideak, materialak... | Izan ditudan zailtasunak | Zer ikasi dut? Hobekuntzak |
| SENTIMENDUAK | | | |
| Zailtasunak agertu direnean nola sentitu naiz? Zailtasunak argitzea lortu dut? Zer sentitu dut? | Hobekuntzaz jabetu naizenean... | Zeintzuk izan dira sententzioak ostiralean? Astean gertatutakoa azaldu | |

7. GEHIGARRIA: IKASLEAREN EGUNEROKOA

IKASLEA:

ASTEA:

| | |
|-------------------|--|
| ASTELEHENA | |
| ASTEARTEA | |
| ASTEAZKENA | |
| OSTEGUNA | |
| OSTIRALA | |